

INDIA: Behekoenak garaile,
ahalguztidunaren eta gizonen
sindikatuaren aurkako borrokan > **4**

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Perspektiba, hain erraz galtzen
den zera hori **IÑAKI ALTUNA > 11**

2016ko urtarrilaren 23a | X. urtea • 452. zbk.
0,50 euro

GAUR8 

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

PSIKOSOLIDARIOAK, BEHAR ASKO ETA AUKERA GUTXI

PSIKOLOGIA PASIO DUTEN TERAPEUTA
BATZUEK SORTUTAKO PROIEKTUA DA
PSIKOSOLIDARIOAK SAREA, TERAPIA BEHAR
DUEN JENDE AUNITZ DAGOELAKO DIRU
FALTAGATIK ZERBITZUA JASO GABE GERATZEN
DENA. SORTU DUTEN SAREAN DENBORA DA
ORDAINTZEKO TXANPONA. > **12** GAUR8



Behekoenak garaile Indian,
ahalguztidunaren eta sindikatuen
aurkako borrokan 04

Turista kopurua gora munduan,
atentatu arriskua igo arren 07

Psikosolidarioak: terapia jaso eta
denborarekin ordaindu 12

Ganadurik gabe, zer? 17

Elkarrizketa: Pau Ribes, igeriketa
sinkronizatuaz 22

Ikastetxeak, baserritarrak eta janari
zerbitzua, denak bat Urdaibain 27

Infraganti: Juanma Indo 28

Behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 Isidro Esnaola: Gakoa burujabetza ekonomikoa da
- 10 Oier Gorosabel: Gehiegizko entrenamenduaren kalteak
- 11 Iñaki Altuna: Perspektiba, hain erraz galtzen den zera hori
- 15 Saioa Iraola: Osatze prozesua(k)
- 16 Unai Iturriaga
- 19 Joxean Agirre: Deskonexioa
- 20 Gaizka Amondarain: «Hasteko sakatu edozein tekla»
- 21 Iker Barandiaran: Moden pilotakadak
- 30 Ander Izagirre: Altxorraren bila Islandian



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Gakoa burujabetza ekonomikoa da

Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziak bilera izan zuen pasa den asteburuan Vienan. Gaien artean, Irango programa atomikoaren jarraipena zegoen. Azkenean, Iran bere konpromisoak betetzen ari dela onartu zuen agentziak, herrialdearen aurkako zigor ekonomikoak altxatzeko erabakia hartuz. Bai nazioarteko komunitateak bai Iranek berak oso positiboki baloratu dute deliberamendua. Bi aldeek gatazkak konpontzeko bide diplomatikoak erabiltzea ere goraipatu dute.

Iranek urteak daramatza zigor ekonomikoak pairatzen. Denbora luze horretan ez ditu nazioartean merkataritza harreman librean izan: zenbait produkturen salmenta eta beste hainbat erostea debekatuta izan du herrialdeak. Egoera horrek ondorioak izan ditu herritarren bizitzetan, baita Estatuaren garapenean ere. Egun, Iranek defizit handia du azpiegituren esparruan. Baina ez soilik. Garraio tresneria, adibidez, zaharkituta gelditu zaio. Negozio esparru zabala irekitzen zaie orain eraikuntza enpresei, tren industriari, hegazkingintza enpresei edota itsas industriari. Bestalde, Iranek energia esparruan petrolio eta gas erreserba handiak ditu eta horiek esplortatzeko tresneria beharko du. Horrez gain, persiar Estatuak energia elektrikoa inportatzen du. Energia atomikoarekin gabezia hori bete nahi izan zuen. Orain, aldiz, ziu- rrenik energia berriztagarrietan arreta jarriko du eta horiek erabiltzeko inbertsioak egin beharko ditu. Beraz, negozio esparru zabalak irekitzen dira. Horixe izan da Mohammad Agha Nahavandian Irango presidentearen kabinete buruak Davosko forora eraman duen mezua.

Horiek horrela, egoera berria ezagutu bezain pronto negozio aukerak proposatu eta balizko irabazien inguruko kontuak ateratzen hasi dira mundu osoko gobernuak eta enpresak. Maisuak dira horretan Gasteizko Gobernu-ko ordezkariak. Igandean bertan Arantza Tapia Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasuneko kontseilariak adierazpen batzuk egin zituen eskaera bat luzatuz; nori zuzentzen zitzaion oso argi gelditu ez bazen ere: «segurtasun juridikoa» eskatu zuen. Egia da Euskal Herriko makina-erreminta sektoreko hainbat enpresak arazoak izan dituztela. Espainiako Kanpo Merkataritzako Estatu Idazka-

ritzak baimena ematen zien makinak Irani saltzeko, eta, gero, atzetik, Guardia Zibilak ikerketak irekitzen zituen makina horiek «erabilpen bikoitza» izan zezaketelako, hau da, erabilpen zibila eta erabilpen militarra.

Gure herrian horren inguruan badugu nahiko eskarmenturik. Deba ibaiaren arroan, esate baterako, enpresa askok armak egiten zituzten garai batean. Merkatu hori gainbeheran etorri zenean, irtenbide bat bilatu behar izan zuten. Su armen osagarri nagusienetako bat hodiak dira. Eta hodiekin zer egin daiteke? Txirringak. Eta horrela armagintzako enpresa asko txirringak egiten hasi ziren. Erabilpen bikoitzari buruz eztabaidatzeak ez du zentzu handirik. Hodiak erabiltzen dira armak egiteko, gas-hodiak eraikitzeke, txirringak osatzeko, eta abar. Makina batek erabilpen anitzak izan ditzake. Horrek nabar- men uzten du zigor eta blokeo ekonomikoak erabat zentzugabeak direla. Alde batetik, kalte izugarriak sor-

Euskal enpresek Iranera «segurtasun juridikoz» esportatzerik ez izateko arrazoia beste bat da: ez dute atzean estatu bat nazioarteko harreman ekonomikoetan laguntza eta babesa emateko

ditzakatelako, batez ere, herritarrengan, eta, beste alde- tik, askotan, ezin dutelako bilatzen duten helburua lortu; azken finean, makina berdinak era askotako gauzak egi- teko balio duelako.

Baldintza horien inguruan segurtasun juridikoaz hitz egiteak ez du zentzu handirik, ez bada, behintzat, aten- tzioa desbideratzeko. Gai honetan arazoa beste bat da: Euskal Herriko enpresek ez dute atzean estatu bat nazio- arteko harreman ekonomikoetan laguntza eta babesa emateko. EAJ poz-pozik dabil kontzertu ekonomikoare- kin –batez ere, bere lagunek zergak ordaintzen ez dituz- telako–, baina hori ez da hemengo ekonomiak eta berta- ko enpresek behar dutena. Jarduera ekonomikoa antolatzeke, babesteko, sustatzeko eta nazioarteko mer- katuan aritzeko estatu bat izatea ezinbestekoa da. Hori lortzeko, burujabetza ekonomikoa eskuratzea da gakoa.

INDIA

Behekoenak garaile, ahalguztidunaren eta gizonen sindikatuen aurkako borrokan

 **JENDARTEA /** joseangel.oria@gaur8.info

Kerala Indiako hego-mendebaldeko estatuan gertatu denak dagoeneko badauzka artikuluak Wikipedia entziklopedian eta ingelesezko hedabide ugari nabarmendu dute: 6.000 emakume ia analfabetok, Tata Group taldeko te konpainia ikaragarria makurrarazi dute, berrikuntzaz betetako borroka prozesu baten ondoren. Sindikatuak, jokoza kanpo.

Aparteko matxinada» deitu diote BBC telebista kate britainiarrean. «Garaipen hunkigarria», nabarmendu dute Wikipedian. New Delhiko sindikatuak Kerala te-biltzaileen garaipenak erabat nahastuta dauzkala esplikatu du IPS agentziak. Aldi bere-

an, Indiako beste estatuetan, Assamen, Mendebaldeko Bengalan, Tamil Nadun eta Karnatakan, te-biltzaileak Kerala begira daude, han piztu duten sua nola berenganatu pentsatzen hasita. Lissie Sunny txikia da historia honetako protagonistetako bat, hedabideetan ateratzea tokatu zaiona: goizeko zortzietan hasi

Munnarko gunetako turistikotara ere eraman zuten protesta Kerala te-biltzaileek, bertako merkataritza eta turismoa ia erabat geldiaraztea eraginez. AFP

eta ilundu arte lanean aritzeagatik 3,5 dolar inguru kobratzen ditu. Inoiz elkarrekin egon ez badira ere, ustezko ringeko beste muturrean Ciro Pallonji Mistry Tata Groupeko presidentea jarri behar da. Bere taldeak 62.500 milioi dolar fakturatzen ditu urtean eta “The Economist” aldizkariak esan du «Indiako eta Britainia Handiko industrialaririk garrantzitsuenak» dela.

AURREKARI KEZKAGARRIAK

Pallonjiren arrakastaren arrazoiak artean bere langileen soldadak murrizteko joera zegoen, eta kasu askotan legeak dioena bortxatzen iritsi izan dira bere konpainiak. Giza eskubideen aldeko institutuek egindako txostenek salatzen dute Tata taldeko konpainiatan oso lan baldintza txarrak izaten direla, soldata txikiegia, eta giza eskubideen bestelako bortxaketa larriak ere ematen direla. Te kon-





Tearen industria soldata txikiengatik eta biltzaileen esplotazioarengatik nabarmendu da. GAUR8

painiak lan arloko legedia etengabe urratzen du eta “The Guardian” egunkariak 2014an eskaini zuen dokumental batek salatu zuen Assam estatuko te-biltzaileei gutxieneko soldata baino gutxiago ordaintzen zaiela.

Txosten horiek deskribatzen duten egoeratik sortu zen Keralako emakumeen borroka eredugarria. Multinazional handi bati aurre egiteaz gain, herrialdean ikaragarria den matxismoaren erasoak ere jasan behar izan dituzte. Gizonak nagusi diren alderdi politiko eta sindikatuak alde batera utzi eta beren borroka egitera ausartu eta horrela egin dute.

SUSTRAI SAKONEKO FENOMENOA

Keralako te-biltzaileek Kanan Devan Hills Plantations enpresaren sailetan egiten dute lan, hau da, Tata Groupeko Tetley Tea konpainiaren mendean dauden sailetan.

Emakume horien protesta abiarazi zuen txinparta, hobari moduan biltzaileek jasotzen zuten dirua ez emateko erabakia izan zen. Baina gatazkaren sustraiak askoz ere sakonagoak dira, begiraleek diotenez.



LISSIE SUNNY 47 urte ditu eta 25 urte daramatza tea biltzen. Berak zuzendu zituen te biltzaileen lehendabiziko mobilizazioak eta Emakumeak Bat Eginda (Pempilai Orumai) mugimenduaren sortzaileetako bat da. Egunean 3,5 dolar baino ez ditu irabazten. Lanean goizeko zortzietan hasten da; ilundu arte.



CIRO PALLONJI MISTRY 47 urte ditu. Tata Group taldeko presidente bihurtu zen 2012an. Bere taldeak 62.500 milioi dolar fakturatzen ditu urtean “The Economist” aldizkariak esan du «Indiako eta Britainia Handiko industrialaririk garrantzitsuen» dela. Eraikuntza sektoreko handikia zuen aita.

Justin Rowlatek Assameko te-biltzaileen egoera aztertu zuen orain hilabete batzuk. BBCKo kazetariak esplikatu duenez, bertako bizi-baldintzak oso txarrak dira, eta, lan baldintzak, okerragoak. Soldatak, berriz, legediak onartzen duena baino txikiagoak. Horregatik, biltzaileen eta euren familien artean desnutrizio kasu ugari izaten dira; gaitasunak ohikoak dira, kasu batzuetan heriotza eragiteraino. Gosearen astindu latza.

Keralako te-biltzaileak ez dauke hobeto. Ohe bakarreko etxolatan bizi dira, komunik gabe eta hemen oinarritzotzat jotzen ditugun ekipamendurik gabe. Assamekoek baino gehiago irabazten badute ere, egun osoa lanean aritzeagatik jasotzen dituzten 230 errupiak (3,5 dolar), Keralako gizon langile batek kobratzen duenaren erdia dira.

Irailean erabaki zuten emakumeek beren protestei hasiera ematea. Hobaria kobratzeaz gain, exijitzen zuten soldata igozteko eta bizi-baldintzak hobetzeko. Ideia ez zitzaientz batere gustatu sindikatuari, ustez te-biltzaileak ordezkatzeko dituzten gizonen osatutako erakundeei.



ESKEMAK HAUSTERA OHITUTAKO «ESTATU KOMUNISTA»

Kerala Indiako hego-mendebaldeko estatu bat da. 38.864 kilometro koadro eta 33.387.677 biztanle ditu. Hiriburua Trivandrum da.

Kerala Indiako estatutik aurreratuenetako bat da, herritarren garapen indizeei dagokienez. Ia analfabetorik ez dago bertan eta jaiotza tasa txikia du. Emakumeek ume bakarra izaten dute normalean. Keralak izan zuen Indiako lehenengo gobernu komunista, E. M. S. Namboodiripadek zuzendu zuena. CPI Indiako Alderdi Komunistak 1957ko hauteskundeak irabazi ondoren iritsi zen agintera, alderdia bat eginda zegoela. Keralakoa izan zen botoen bitartez agintea lortu zuen munduko lehen gobernu komunista. Komunistek bi hamarkada agintean egin eta gero, ezkerreko eta eskuineko koalizioak txandatu dira exekutiboan.

Indiako Gobernuak agintea deszentralizatzeko 1990eko hamarkadan abian jarritako planifikazio parte hartzaileko kanpaina beste inon baino gehiago garatu da Keralan, bertako gizartea bizi-bizirik dagoelako, komunistek aldetak bultzatzeko helburua zutelako eta herritarrek kanpainarekin bat egitea erabaki zutelako. CIMAS Hiritartasunaren eta Ingurumenaren Behatokiko begiraleek diote Keralak garbi utzi duela garapen sozialak hazkunde ekonomikoa eragin dezakeela, betiko gidaliburutik kontrakoari eusten bazaio ere.

Emakumeek diote sindikatueta-ko buruak konpainiako zuzendaritzarekin bat eginda daudela, emakumeen eskubideak ukatzen dituztela eta lanposturik onenak gizonentzat gordetzen dituztela. Bestalde, Keralako biltzaileek ez dute ahaztu orain urte batzuk tearen nazioarteko salneurriak behera egin zuenean sindikatueta-ko gizonak beti lortu zutela lanpostuei eustea. Gainera, senarrek jarrera aldatu eta seme-alaben hezkuntzaz arduratu eta etxekoen beharrei erantzuten has daitezten lagundu beharrean, ezer ez egitea leporatzen diete sindikatu-uei, eta, ondorioz, gizon askok edan egiten dutela irabazitako dirua.

Konpainiaren egoitza nagusi-ra doan erreprenta okupatzea erabaki zuten hasiera batean, beren buruei esateko protesta antolatze-ko gauza zirela. Inola-ko esperientzia sindikalik ez bazuten ere, hasi egin ziren. Emakumeak Bat Eginda (Pempilai Orumai) deitu zioten taldeari. Munnarko gune turistikoetara ere eramane zuten protesta, bertako merkataritza eta turismoa ia erabat geldiaraztea eraginez. Pankartetan irakur zitezkeen honako mezuak: “Tea bildu eta zakuak bizkarrean eramane di-

tugu, zuek dirua eramane du-zuen bitartean”, edo “Gu lato-rrizko etxolatan bizi gara, eta, zuek, bungalow erosotean”.

Sindikatu-aren aurkako mezuak aukeratu zituzten pankartetan idazteko. Sindikatueta-ko burue-tako batzuk beraie manifestazio batera hurbildu zirenean, bidali egin zituzten. Kasu batean sandaliak eskuetan hartuta egin zieten mehatxu gonbidatu ga-beko bisitariei. Sindikatu-aren eraikina-aren aurrean zeuden mastak bota zituzten beste batean. Politikariak emakumeekin argazkia egitera etorri zitzaizkienean ere, izutu egin zituzten. Garbi zuten nahi zutena, ez zeuden bide hori uzteko moduan, laguntza eskai-niz edonor etorrita ere.

BEDERATZI EGUN

Te konpainiak harropuzkeriaz erantzun zuen lehen momen-tuan, baina bederatzi egune-ko protesta eta negoziazio amaiga-been ondoren, aldatu egin zuen jarrera eta azkenean Keralako le-hen ministroak zuzendutako el-karrizketa prozesuan konpai-niak atzera egin zuen. %20ko hobaria berreskuratu zuten emakumeek, eta sindikatuak baztertuta geratu ziren, tripak jaten. Emakumeek negoziatuta-

ko akordioa sinatu beste erre-medorik ez zuten izan.

Emakumeek borrokan jarrai-tzen dute. Soldata igoera beste mahai batean negoziatu behar dute, eta, sindikatu-ek, aurrea hartu nahian, 230 errupia-ko sol-data 500era igotzea exijitzeko kanpaina jarri dute abian. Baina emakumeek beren kanpaina propioa abiarazi dute.

Hedabideek salatu dutenez, te-biltzaileek harrika egindako eraso bat jasan zuten protesta batean, eta sei manifestari zau-ritu zituzten. Baina ez dirudi bo-rrokalari horien erabakia alda-tuko dutenik. Sunnyk honako adierazpenak egin zizkion Catch atariari: «Galtzeko ezer ez dugu. Gosea eta sufrimendua geure bizimoduaren zati dira. Gosez hiltzeko arriskuak ere ez gaitu kezkatzen, baina ez dugu inoiz onartuko gu esplotatzea».

Adituek diote Tata Groupen oso lan baldintza txarrak, soldata txikiegiak eta giza eskubideen bestelako bortxaketa larriak izaten direla

Gizonak nagusi diren alderdi eta sindikatuak alde batera utzi eta beren borroka egitera ausartu dira Keralako te-biltzaileak

Ohe bakarrek etxolatan bizi dira Keralako te-biltzaileak, komunik gabe eta Euskal Herrian oinarritzotzat jotzen ditugun ekipamendurik gabe. Assamekoek baino gehiago irabazten badute ere, egun osoa lanean aritzeagatik jasotzen dituzten 230 errupiak (3,5 dolar), Keralako gizon langile batek kobratzen duenaren erdia dira.

AFP

{ txostena } Jose Angel Oria

AISIAREN KULTURA

Turista kopuruak gora egin du munduan, atentatu jihadisten arriskua hazi egin den arren

Nazioarteko turismoa gora egiten ari da eta horrela jarraituko du datozen urteetan

ere, TME Turismoaren Mundu Erakundeak argitara eman berri duen txostenaren arabera. 2015ean 1.184 milioi turista zenbatu zituen erakundeak, aurreko urtean baino 50 milioi inguru bidaiari gehiago; %4,4ko hazkundera 2014ko datuekiko, marka guztiak hausteko. Seigarren urtez jarraian, turista kopuruak igotzeko joerari eusten dio, 2010az geroztik hazkundera %4 edo gehiagokoa izan baita, 2008an hasitako krisi ekonomikoaren lehendabiziko astindu larriaren ondoren, Taleb Rifai TMEko idazkari nagusiak astelehenean nabarmendu zuenez.

Hala ere, hazkunderako joera hori ez da bazter guztietara iristen, leku batzuetan, eraso jihadistak larriagoak izan diren le-

kuetan batez ere, turista kopuruak behera egin baitu. Turisten sorrerari dagokionez, herrialde industrializatuetatik abiatutako bidaiari kopuruak %5eko igoera izan zuen iaz, eta %4koa gorabidean diren herrialdeetatik abiatutakoenak. Europako turista kopurua asko hazi izanak eragin du emaitza hori, Rifaik erantsi zuenez. Adituek diote kanbio-tasen aldaketek, hau da, txanponen balioa horrenbeste aldatu izanak, petrolioaren salneurriak behera egiteak eta oinarritzko beste produktu batzuekin ere gauza bera gertatu izanak, eragin dutela herrialde inportatzaileetako biztanleek turismorako diru gehiago izatea poltsikoan.

Aldi berean, baina, petrolio eta beste produktu horiek esportatzen dituzten herrialdeetako herriarrek erosteko ahalmena murriztuta ikusi dute.

Bestalde, TMEkoek onartzen dute atentatuak ere beren eragina izaten dutela turismoaren bilakaeran, eta Tunisian, Parisen edo Turkian egin diren eraso

jihadistek, esaterako, gero eta kezka handiagoa eragiten dutela. Hala ere, «ezin dugu onartu terroristek nahi dutena lor dezaten, gu beldurrez akabatzen etxean geratzea. Geure bizimoduari eutsi behar diogu, eta bidaiatzea bizimodu horren zati garrantzitsu bat da», adierazi zuen Taleb Rifaik.

EUROPA TXAPELDUN

«Ez dut esaten segurtasun neurriak ahuldu behar direnik, baina orain arte lortutako bidaiatzeko erraztasun eta irekieran atzera egitea suposatuko luketen zirkulazioa murrizteko neurriak ez ezartzeko eskatzen dugu», erantsi zuen.

Europako herrialdeek horrenbeste turista hartu izana (609 milioi lagun 2015ean, 2014an baino 29 milioi turista gehiago) kanbio-tasen aldaketan ondorio da, neurri handi batean.

Izan ere, euroak behera egin du, eta gora dolarrak eta beste moneta garrantzitsuenek. Beraz, estatubatuarentzat, esaterako, oso merke dago Europa une honetan, eta bertako helmuga turistikoak erakargarriagoak bihurtzen dira.

Edonola ere, kontinenteko eskualde guztiek ez dute hazkundera bera izan. Horrela, Europako erdialdeak eta ekialdeak %6ko hazkundera izan zuen iaz, beste eremuek baino handiagoa, au-

«Macaca fuscata» espezieko primateek turista ugari erakartzen dituzte Japoniako iparraldeko Nagano prefekturako helmuga turistikoetara.
Yasuyoshi CHIBA | AFP

1.184

Turismoaren Mundu Erakundeak 1.184 milioi nazioarteko turista zenbatu zituen 2015ean, aurreko urtean baino 50 milioi inguru bidaiari gehiago; %4,4ko hazkundera 2014ko datuekiko



rreko urtean herrialde horiek hartutako turista kopuruak behera egin zuelako. Europako iparraldeak, berriz, hazkunde bera (%6koa) izan zuen, baina aurreko urtean atzera egin gabe. Europako hegoaldeak eta Mediterraneoko herrialdeek %5eko hazkundeak izan zuten iaz, eta Europako mendebaldeak, %4ko hazkundeak. Kontuan hartu behar da Europako mendebaldeak ibilbide luzeko helmuga turistikoak dituela, eta horrek meritua eransten diola erregistratutako hazkunderari.

TME Turismoaren Mundu Erakundeko adituek egin duten txostenean Asiako eta Ozeano Bareko herrialdeak bat eginda ageri dira, baina Ekialde Hurbileko herrialderik gabe. Eremu horretan ere 2014ko markak hautsi egin zituzte eta 2015ean 277 milioi turista hartu zituzten, aurreko urtean baino 13 milioi lagun gehiago. Ozeaniak izan zuen hazkunderik handiena (%7koa), eta Asiako hegi-ekialdeko herrialdeek ere hazkunde garantzitsua izan zuten: %5ekoa. Asiako hegoaldean eta ipar-ekialdean, berriz, zertxobait gutxiago hazi da turista kopurua: %4 besterik ez. Amerikako herrialdeek, azkenik, aurreko urtean baino 9 milioi bidaiari gehiago hartu zituzten 2015ean, 191 milioira iristeko: %5eko hazkundera.

DOLARRAK, GORA

Dolarrak gora egin izanak eragin zuen estatubatuarrentzat merkeago ateratzen zela atzerri-ara bidaiatzea, eta horri esker ikaragarri hazi zen iaz Karibeko eta Erdialdeko Amerikako herrialdeek hartutako turista kopurua: %7. Hego Amerikan eta Ipar Amerikan, berriz, hazkunde bera izan zuten: %4koa.

Ekialde Hurbileko herrialdeek ere aurreko urtean baino turista gehiago hartu zituzten 2015ean, harrigarria bada ere. European horrenbeste eztabaida eta liskar eragiten ari den iheslarien etorrera Ekialde Hurbileko gerrek eragin dute, gaur egungo Libian (eremu horretan sartu dute egileek, baina ondoan dauden Tunisia eta Aljeria, Afrikan), Iraken



Konpainia handiek itsas bidaia bultzatzen dituzte azken urteotan, alde kaltegarri ugari dituzten arren. GAUR8

TURISMOAK HORRENBESTE KALTETU DUEN MEDITERRANEO ITSASOA UTZITA DUTE AGINTARIEK, EKOLOGISTEN ARABERA

WWF Munduko Natura Funtzak aste honetan bertan salatu du Mediterraneo itsasoa erabat utzita dutela agintariek eta eskatu du bertan eragina duten sektore ekonomikoak elkartzeko, gizakion jarduera ekonomikoa hain suntsitzailea izan ez dadin. Talde ekologistako adituek uste dute Mediterraneo itsasoari begira horrenbeste herrialde egoteak (28) zaildu egiten duela neurriak elkarrekin hartzea. Nabarmendu dute erlijio eta kultura ezberdineko herrialdeak direla, eta horrek ere zailtasunak eransten dizkiola itsasoa zaintzeari.

Jose Luis Garcia Varas WWFko kideak joan den asteartean eskaini zuen hitzaldiak ez du zerikusi handirik bezperan TME Turismoaren Mundu Erakundeko Taleb Rifaik emandakoarekin. Rifaik esan zuen turismoaren hazkundeak hazkunde ekonomikoa eragiten duela, eta lanpostuak sortzen dituela. Horregatik eskatu zien gobernuei «turismoaren etengabeko hazkunde ahalbidetuko duten politikak abian jartzeko».

Oso bestelako hausnarketa egin zuen Garcia Varasek: «Itsasoaren garapen ekonomikoa komenigarria da, baina

itsasoak bere mugak ditu eta planifikazioa egiteko garaian muga horiek kontuan hartu behar dira». Horretarako sektore ekonomikoen arteko «benetako elkarriketa» ezinbestekotzat jo zuen WWFkoak, Mediterraneoko baliabide naturalak arriskuan ipini nahi ez badira. Turismoa, akuikultura, itsas garraioa eta gas eta petrolio ekoizpena dira ekologistek aipatutako sektoreak.

Itsas trafikoa nabarmen handitu da azken urteotan eta horrela jarraituko du: urtean %4ko hazkunde aurreikusten dute adituek. Ekologistek diote ez dela nahikoa egin trafiko horrek eragindako arazoak (ontzien arteko istripuak, itsaspeko zarata...) konpontzeko.

Bestalde, Mediterraneoan zeharreko bidaia (gurutzaldia ere esaten zaio) egitea gero eta ohikoagoa da, eta horrek suposatzen du itsasontzi erraldoiak erabiltzea, eta horientzako gero eta azpiegitura handiagoak eraiki behar izatea. Aldi berean, WWFkoen arabera, Mediterraneo itsasoko gainontzeko portuak ia ez dira erabiltzen. Gurutzaldiak ikaragarri hazi dira eta adituek espero dute horrela jarraitzea.

Uraren kutsadura eta istripuak eragiten dituzte itsas bidaia horiek, beste arazo batzuen artean.

Rodrigo Fernandez Miranda Ekologistak Martxan taldeko ikerlariak nabarmentzen du itsas bidaiena dela turismoaren azpisektorerik kaltegarriena; sektorean duen pisuarekin alderatuta, eraginik txarrena duena.

Tamalez, turismoaren industriak, batez ere konpainia handienek, bidaia mota horren alde apustu egin dute, negozioerik garbiena horrekin egiten dutelako. Ez da harritzekoa, bertako langileei ontziaren ibilbideko herri pobretueneko soldatak ematen zaizkielako, beraien eskubideak etengabe bortxatzen direlako, zergak saihesteko makina bat maniobra baliatzen dituztelako konpainiek, paradisu fiskalak erabiltzen dituztelako eta ingurumenean eragiten dituzten kalteengatik ezer ordaintzen ez dutelako. Gainera, itsas bidaia eskaintzen dituzten konpainien aurka ezer egiterik ez dute izaten turistak erakarri nahi dituzten gainerako enpresek. Beraz, turismoak eragindako etekinak, helmuga turistikoan geratu beharrean, konpainia horietako jabeentzat izaten dira.

eta Sirian, esaterako, ez baitago bizitzerik.

Hala ere, lur jota zebilen Ekialde Hurbileko turismoak urte ona izan zuen 2014an eta hobeaz. Herrialde horiek 54 milioi turista hartu zituzten 2015ean, %3ko hazkundearekin.

Afrika da salbuespena turismoaren arlo honetan ere. Kontinente osoko datuak kontuan hartuz gero, turista kopuruak %3 egin zuen behera iaz: 53 milioi bidaiari urte osoan (Estatu espainolak 68 milioi turista hartu zituen, alderatzeko).

TUNISIAKO NEGARRA

Baina Afrika iparraldeko kontuek ez dute zerikusirik hegoaldekoekin. Horrela, iparraldeko herrialdeek aurreko urtean baino %8 turista gutxiago hartu zuten iaz. Nabarmentzekoa da Tunisiako datua, %25,2ko jaitsiera izan baitzuen, Arabiar Udaberria abian jarri zuen herrialdeak jasan behar izan dituen eraso armatuen eraginez.

TME Turismoaren Mundu Erakundeko adituek egin duten txostenak gogorarazten du Afrikari eta Ekialde Hurbilari dagozkie datuak ez direla beti fidagarriak izaten, kasu askotan informazioa biltzea ia ezinezko bihurtzen baita.

Afrikako iparraldeko estatuek %8ko jaitsiera izan badute turista kopuruan, Afrika Beltzekoek ere behera egin dute, baina askoz ere gutxiago (%1). Hori bai, adituek nabarmendu dute uztailetik aurrera hartutako bidaiari kopuruak gora egin duela berriz herrialde horietan.

Nondik sortzen da horrenbeste turista? Azken urteotan, batez ere, Txinatik. Asiako erraldoia da gaur egun atzerrira bisitari gehien bidaltzen duen herrialdea, bertako populazioaren erosmen-ahalmena ikaragarri hazi baita azken urteotan. Ikusgarria da txinatarrek oporretan gastatzen duten dirutzaren bilakaera: 2004az geroztik, %10etik gorako hazkunde izan du Txinako turistek atzerrian gastatu duten diru kopuruak. Thailandiak eta Japoniak hartu dituzte Txinako turista gehien, baina AEBetan eta European ere inoiz

Goiko irudian, Egiptoko Karnakeko tenplua neguko solstizioan, inguruan turista ugari dituela.
AFP

Beheko irudian, Suleimanen meskita, duela gutxi eraso jihadista bat jasan behar izan zuen Turkiako Istanbul hirian.
Ozan KOSE | AFP



%10

Turismoaren Mundu Erakundeko adituen arabera, turismoak munduko barne produktu gordinaren %10 suposatzen du egun, eta planeta osoan dauden hamaika lanpostutik bat turismoarekin lotuta dago

1,5

Turismoak urtean 1,5 bilioi dolar mugitzen ditu mundu osoan. Nazioarteko merkataritzaren %6 suposatzen du turismoak eta esportatzen diren zerbitzuen %30 inguru

baino txinatar gehiago ikusi da 2015ean argazki edo bideo kamara lepotik zintzilik.

Ameriketako Estatu Batuetatik (%9ko hazkunde) eta Britainia Handitik (%6koa) ere inoiz baino turista gehiago irten ziren iaz. Adituek diote dolarrak eta libera esterlinak gora egin izanak eta herrialde horietako ekonomiaaren sasoiak hobera egiteak eragin dutela fenomenoak. Alemaniatik, Italiatik eta Australiatik ere aurreko urtean bai-

no turista gehiago irten zen iaz, baina hazkunde askoz ere apalagoa izan da: %2 ingurukoa. Kanadak eta Estatu frantsesak, berriz, atzerrira bidaiariak bidaltzeko joera ahulagoa izan zuten iaz.

ERRUBLOA ETA ERREALA

Beherako joera erakutsi dute aurreko urteetan oso datu onak eman zituzten herrialde batzuek ere, beren ekonomiak dituen arazoaren eraginez. Errusia

eta Brasil ageri dira horien artean. Errubloak eta errealek behera egin dute, eta, ondorioz, errusiar eta brasildar askorentzat atzerrira oporretara joatea garestiegi bihurtu da.

Aurtengoan ere turista kopuruak gora egingo du munduan, estatuen ordezkariak osatutako Turismoaren Mundu Erakundearen arabera. Hazkunderik handiena Asian eta Ozeano Bareko herrialdeetan izango lukete (%5), eta Afrikan txikiena (%2).



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta eta osteopata

Gehiegizko entrenamenduaren kalteak

Ezagutzen nauenak badaki kirolarien laguna naizela, baina ez hainbeste manager, enpresari eta, orokorrean, haien gibeletik etekina ateratzen duten bizkarroiena. Beti kirolzalearen osasuna gogoan, gaur norbere ahalmena ezagutzearen garrantzia azpimarratu nahiko nuke.

Zehatzago esanda, ahalmen horren gainetik entrenatzean datorren gainbehera azaldu nahiko nizuke, hura ekiditeko zenbait gako ematearekin batera.

Bizkarroiei buruz hitz egin dudanean, nahita utzi ditut kanpoan entrenatzaileak. Izan ere, jakin badakit prestatzaile fisiko gehienek beren ardurapeko kirolarien osasunarengatik erakusten duten kezka zintzoa dela. Hain zuzen ere, gaur aipagai dugun arazoari aurre egin ahal izateko, entrenatzaileek berebiziko papeira jokatu dute: itxuraz egokia den entrenamenduan zehar emaitzak kaskartzen direnean, prestatzaileak bere neska-mutilekin komunikazio ona izan beharko du. Horretara, gehiegizko entrenamenduaren zeinu goiztiarrak sumatzen dituenen, bere aholkuekin arazoa larri bihurtu aurretik bideratu ahal izango du.

Komunikazio ona izan behar du, bai: zentzu horretan, mesedegarriagoa izango da bere kirolarien laguna den pertsona esperientziaduna, soldaduak prestatzera eginda dagoen diktadore tipoko entrenatzailea baino. Izan ere, detektibe lana egin beharko du faktore fisikoe-tatik hasita: elikadura nola-koa den, osasun arazorik ote dagoen, hormona kon-tuak nola dabilzan, lo ohi-turak zelakoak diren... Hori-xe izango da lehen pausoa, eta, hortik aurrera, kirola-riaren buruan zer dagoen pixka bat ezagutu beharko du: izaera, motibazioa... az-terketa garaia den, adibidez, garrantzitsua izan daiteke; edo entrenatzaile edo lagu-nekin duen konfiantza. Ez baitugu ahaztu behar pre-sio soziala: lagunak, fami-

liak, komunikabideek edo entrenatzaileak berak kirolariari sentimen itogarriak eragin diezaiekete, kirol jardunaren kal-terako. Faktore horiek guztiek (banaka, edo denek batera) eragin dezakete ustez modu egokian entrenatzen ari den ki-rolari horrek gero eta emaitza kaskarragoak izatea, gero eta nekatuagoa sentitzea.

Entrenatzaileak begi ona badu, segur aski kirolaria bera baino lehenago konturatuko da egoeraz, batez ere neska-mutil gazteen kasuan. Puntu horretan, egoerari aurre egitea ez da zaila izango: nahikoa izango da entrenamendu kargak eta denborak egokitzea, kirolari horren kontrola areagotzea, ariketa anitzekin saiatzea, taldeko giroa zaintzea... Eta, esan gabe doa, kirolariak berak ere zeregin garrantzitsua izango

du egoerari buelta ematera-koan: hasteko, bere ahalme-naren gainetik dabilela ulertzea; ariketa saio bakoit-zak atzetik behar duen erre-kuperazio denbora errespetatzea, behar den or-du kopurua lo egitea, modu orekatuan elikatzea... Gor-putzak "esaten" duenari ere erreparatzen ikasi beharko du: infekzioen bat badago, adibidez, gorputzak energia asko bideratuko du arazo hori konpontzera, eta erro-re a litzateke betiko modura entrenatzen jarraitzea; ho-rrela gaixoa izan daiteke lu-zatzea baino ez da lortzen-eta. Au-toezagutza prozesu horre-tan norbere egoera psikolo-gikoari erreparatzen ikastea ere komeni da...

Konturatzen bazarete, ai-patzen ari garen gaitasun guztiak esperientziarekin hartzen dira. Ez da alferrik esaten, salbuespen gutxi batzuekin, kirol gehienetan bakoitzaren onena 30 urte ingurutik aurrera ematen dela: akatsak behin eta berriro eginaz, lesio asko sufrituz, kolpez kolpe... ikasten da. Norbere gorpu-tzaren "erabilpen eskulibu-rua" ulertzean dago kirolaz gozatzeko eta etekinak lor-tzeko gakoa. •



Norbere ahalmena ezagutzea da garrantzitsua.

THINKSTOCK

{ asteari zeharka begira } **Iñaki Altuna**

Perspektiba, hain erraz galtzen den zera hori

Bat-batean gertatzen dira zenbait berri. Beste zenbait kontu, aldiz, ez direla mugitu ere egi-ten dirudi. Eta dela bata dela bestea, hilabete baten buruan zer-nola egon gaitezkeen ezin daiteke sumatu ere egin. Adibideak nonahi ditugu: Katalunian hondamenditik prozesua erreskatatzen ikusi dugu, eta, beharbada, Estatuaren itxi-keriak burujabetzaren aldeko indar eta sektoreen artean sortutako zauriak sendatzen lagunduko du, portaera be-netan txarrak izan ostean. Espainiako Gobernua osatze-rik izango ote duten ere zalantzan dago, Felipe erregeak nor proposatu ere ez dakiela. EAEn egitura juridiko-poli-tikoaren eztabaida berpiztu egin da, bat-batean hau ere, nahiz eta epez kanpo aritu, legealdiaren amaiera hortxe baitago. Hauteskundeak etorriko dira eremu horretan, eta oraintxe jakin ez dakigu –edo bai– Arnaldo Otegi aurkezterik izango duen, edo aurkezterik nahi izango ote duen... Hala dago, bada, pa-norama, zirt edo zart egiteko edota bere horretan segitze-ko dagoen ezin antzeman. Nolabait esatearren, aspaldi honetan perspektiba politi-korik gabe gaude, norabidea ikusteko dezente arazorekin. Arnas luzeko apustuak egin behar direla esan bai, baina, gehiegitan, itolarria da nagu-si, azken gertaerak behartu-ta, epe motzeko hurrengo hi-tzorduak aztoratuta.

Mapa politikoa bera inoiz ez bezala aldakor dabil gure-an, Podemos fenomeno berriaren azken gorakada dela-eta. Pentsa, jada ez dira lau mahaiaren inguruan eseri be-harra izango luketen familia politikoak, noizbait eseriko balira. Ezkerreko independentismoa, eskuineko naziona-lismoa, ezkerreko unionismoa eta eskuineko unionis-moa genituen orain artean –azken biak euskal nazioaren aitortzari eta erabakitzeko eskubideari uko eginez–, eta orain «unionismo demokratikoa» ere gehitu omen da. Ikusteko dago zeintzuk izango diren Podemosen gara-pen eta ekinbide politikoak eta halako definizio ponpo-soa merezitakoa ote duen edo ez. Edonola ere, mahaiak une honetan ez ditu soilik lau hanka.

Berri eta albiste andanak lardaska dakar berarekin. No-la kokatu, adibidez, Auzitegi Nazionalako fiskalak akor-dio proposamena egitea orain arteko Estatuaren logika guztiaren kontra? Zer sinesgarritasun dute Parisko Go-

bernuak beste aldarte bat duela dioten zurrumurruek? Errealitatea ez da analisi politikoetarako erabil ohi diren esaldi borobiletan kabitzen. Beste askori bezalaxe, Jonan Fernandezi pasatzen ari zaio, albiste onak ere disgustuz hartzen baititu. Antza, Urkulluren Gobernua joko kanpo egon daitekeela pentsatze hutsak asaldatu egin du, hila-beteak eta hilabeteak bazterrak nahasten eta besteen la-na izorratzen pasa eta gero. Autokritika gainerakoei es-katzen zaien ariketatzat dute holakoek.

Burua altxa eta perspektibarekin begiratzeko ordua ere bada. Gogo hori antzematen zaio ezker abertzaleak martxan jarritako “Abian” deituriko eztabaida prozesua-ri, “Zutik Euskal Herria” ebazpenarekin hasitako bidean katramilatu samar geratu ostean. Atzera begira, esan dai-teke hasierako aurrerakada izugarriaren ostetik atzeral-dian sartu dela apustu politikoa. Aurrera begira, arnas luzea ostera ere berreskuratzeko, erabakitzeko eskubide-

Prozesu dinamiko bat indartzeko gaitasunean egon daiteke gakoa. Eraiki beharreko prozesuak hiruzpalau urte izango ditu aurretik hautetsontziek jarri ohi duten estres testa berriro iritsi aurretik

aren aldeko nagusitasun soziala burujabetza eta aldaketa prozesu dinamiko bihurtzeko gaitasunean egon daiteke gakoa. Egotetik egitera. Eta horretarako aldagai garran-tzitsuak hartu beharko dituzte kontuan konprometitze-ko prest direnek, hauteskunde zikloa aurrean amaituko dela kontuan hartuta. Alegia, eraiki beharreko prozesuak hiruzpalau urte izango ditu aurretik hautetsontziek jarri ohi duten estres testa berriro iritsi aurretik. Ordurako, Nafarroako aldaketa ondo bidean bada, marko juridiko-politikoaren eztabaidan eragiteko proposamen egokiak jartzen badira mahai gainean, independentismoak bere eskaintza gero eta erakargarriagoa egiten badu, ondorio-en konponbidearen arlotik prozesu politikoari mesede egiten bazaio –eta alderantziz–, herri aktibazioa eragiten bada... salto garrantzitsuak egiteko aukera erdiets daite-ke. Baina ez da bakarrik etorriko. •

PSIKOSOLIDARIOAK

Terapia jaso eta zerbitzua diruarekin beharrean denborarekin itzultzeko sarea

Psikosolidarioak kolektibo bat da. Sare bat edo komunitate bat osatzen dute terapeuta, paziente eta proiektuan parte hartzen duten bertze pertsonak. Elkar laguntzen dute, eta batzuen gaitasunek eta bertzeen gabeziek ez dute desorekarik sortzen. Desberdintasun sozio-ekonomikoak alde batera uzten saiatzen dira. Ez da garrantzitsua pertsona batek zenbat diru duen, baizik eta zer ekarpen egin eta zer jaso nahi duen edo jaso dezakeen.

Jendeak zer ematen duen zaila da definitzen, pertsonen eta beren gaitasunen arabera delako. Arte ederretan trebea den lagunak kartelak egin ditzake, sukaldean iaioa denak urtebetez baterako bizkotxo bat eta igeltseroak etxe batean moldaketak. Irakurtzen edo ipuinak kontatzen abila denak haur edo helduak gozaraz ditzake. Denok

 **JENDARTEA** / Maider Iantzi Goienetxe

Psikologia pasio duten terapeuta batzuek sortu zuten orain hiru urte Psikosolidarioak proiektua, terapia behar duen jende aunitz diru faltagatik zerbitzua jaso gabe gelditzen dela ohartuta. Sortu duten sarean denbora da ordaintzeko era. Pazienteak bere gaitasunekin itzultzen dizkio psikologoari berarekin emandako orduak.

dugu zerbait emateko; hori da egitasmoaren gakoetako bat.

Sarekide batekin, Lide Treku haur psikologo gaztearekin bildu da GAUR8. Te baten bueltan elkarrizketa luze eta lasaia sortu da. Bertan, Psikosolidarioak kolektiboaren funtzionamenduaz gain, jendearen arazo emozional eta mental nagusiez, psikologiak osasun publikoan duen leku txikiak eta etorkinek zerbi-

tzua jasotzerik ez izateaz mintzatu gara, bertze gauza aunitzen artean.

Has gaitezen kolektiboarekin. Trekuk agertu du jendartearen gaitasun batzuk bertzeak baino gehiago baloratzen direla, eta, gainera, autoestimu txikiarekin lotuta, gure gaitasunak ikustea kosta egiten zaigula. Azpimarraitu duenez, sarean gauzatzen den bilatze prozesu hori bera te-

rapeutikoa da. «Zer gaitasun ditut eta zer eman diezaioket jendarte txiki edo komunitate honi? Prozesu hori onuragarria da denentzat».

OSASUNA, GAUZA OSOA

Psikologiaren inguruko talde bat hasi zen egitasmoan, baina konturatu ziren osasuna integrala dela. «Gure sisteman dagoen akatsik handienetako bat osasuna gauza oso bat bezala ez hartzea da. Ohartu ginen ezin genuela akats bera egin eta osasunari hainbat alorretako pertsonak lagun diezaioketela. Izan daiteke masajeak ematen dituen lagun bat, psikologo bat, mediku bat edo Bach loreak erabiltzen dituen bat».

Beraz, psikologo eta terapeuta taldea guztiei irekita dago. Due-la hiru urte hasi ziren. Urtebete eman zuten proiektua sortzen –oinarriak eztabaida eta hausnarketa ugariren ondorio dira–; gero proiektua ezaguta-

Psikosolidarioak proiektua 40 bat kidek osatzen dute oraingoz. Elkar laguntzea da filosofia, baina ez karitatez, berdinetik berdinera baizik. THINKSTOCK



razteari ekin zioten eta ondotik pazienteak etorri ziren –urtebe- te baino gehiago daramate be- raiekin–. Egitasmoa pixka bat egonkortzen denean eta pisu gehiago hartzen duenean osasu- naren bertze alorretan atea jo- tzen hasiko dira.

Osasun publikoak ematen ez dituen aukerak zabaldu nahi di- tuzte ordaindu ezin dituzten pertsonentzat. Hortik sortu zen ideia, konturatu zirelako behar bat zegoela. «Jende pila bat dago terapia psikologiko bat behar duena eta osasun publikoak es- kaintzen duena oso murrizta da, bai denbora aldetik bai sakonta- sun aldetik bai profesional ko- puruaren aldetik. Bestalde, psi- kologian hainbat espezialitate dago eta osasun publikoan ez dago aukeratzetik».

Hala, terapia beharrean den eta diruz ordaindu ezin duen jende horri guztiari laguntzea erabaki zuten, baina ez edozein erataria. Karitatea eman ordez, elkartasuna eta parekidetasuna bultzatzen dituzte. «Nik zuri ematen dizut, baina badakit zuk ere gaitasuna duzula niri emate- ko, beraz, ez nago zure gainetik. Hori da Psikosolidarioak egitas- moaren zutabeetako bat. Gaine- ra, jasotakoa itzultzea ere tera- peutikoa da».

PARTAIIDEAK ETA FUNTZIONAMENDUA

Pazienteek, terapeutek, prakti- kak egin nahi dituztenek eta tal- de horietako batean ere sartu ez arren proiektuan parte hartu nahi duten lagunek osatzen du- te komunitatea. Guztira 40 la- gun inguru dira. Hamalau bat terapeuta dira eta orain arte 20- 25 paziente hartu dituzte. Egi- tasmoaren bultzatzaileak ere badaude.

Pazienteei dagokienez, adin guztietako jendea artatu dute, askotariko zailtasunekin: depre- sioa, antsietatea, beldurra, ohe- an pixa egitea... Baina beldurra da arazo aunitzen iturria. Egiten duten prozesuarekin «oso-oso emaitza onak» lortzen ari dira jada eta aitzinera begira gehiago etorriko direla espero dute.

Terapeuten kasuan, elkarriz- keta bat egiten da. Proiektua azaltzen zaie, galdetzen zaie

«Elkartasuna eta parekidetasuna bultzatzen ditugu. Nik zuri ematen dizut, baina badakit zuk ere gaitasuna duzula niri emateko, beraz, ez nago zure gainetik»

«Bizkotxo bat egitea urtebetetze baterako tontakeria bat izan daiteke batentzat, baina, bestearentzat, oso garrantzitsua. Gaitasun guztiak hartu behar dira kontuan»



Lide Treku terapeuta, Oiartzunen. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

zein espezialitate duten (bikote- ak, bikote eta familiak, helduak eta bakarka, helduak eta talde- ka, haurrak...), zenbat paziente hartu nahiko lituzketen eta zein behar dituzten. Zenbait baldin- tza bete behar dituzte: titulua izatea, bere lanbidean hala be- har bada kolegiatua egotea, ase- gurua izatea eta bileretara joa- tea. Zerrenda batean gelditzen dira eta paziente bat iristen de- nean honen ezaugarrien arabe- ra psikologo batengana ala ber- tzearengana bideratzen da.

DENBORA, DENOK BERDINA

Pazienteekin ere elkarrizketa batekin hasten da prozesua. Be- ren gaitasunen zerrenda bat egi- ten da, ekonomikoki terapeuta bat ordaindu ezin dutela erakus- teko paperak eskatzen zaizkie eta hori frogatuta gelditzen de- nean profesional bat jartzen zaie. Terapia hasten denean, bai terapeuta bai pazienteak orduak

pilatzen doaz. Denboraren ban- kuak bezala funtzionatzen du. Pazienteak zor ditu ordu horiek eta terapeutari zor zaizkio ordu horiek. Horrek ez du erran nahi pazienteak bere terapeutari itzuliko dizkionik; ez da horrela egiten uste dutelako harreman terapeutikoa tratatzen duela. Pazienteak bertze terapeuta bati itzultzen dizkio orduak eta tera- peutari ere bertze paziente ba- tek bueltatzen dio bere denbora. «Denbora da gure ordaintzeko era, uste dugulako denentzat berdina dela». Zerrenda batean pazienteen gaitasunak agertzen dira, bertzean terapeuten beha- rrak. Batzuetan bat etortzen dira eta bertzetan ez. Baina beti lor- tzen dute moldatzea. «Terapeu- toi bururatu ez zaizkigun ideiak ematen zaizkigu, adibidez ma- saje bat hartzea». Pazienteak go- goz egoten dira itzultzeko.

Momentuz terapeuten bulego pribatuetan artatzen dituzte pa-

PRAKTIKAK EGITEKO AUKERA EMANEN DIETE IKASLEEI

Lide Trekuk azaldu du Psikologia karrera bukatzean izaten den sentsazioa dela liburu ugari irakurri dituzula, lan teoriko aunitz egin duzula baina praktika hagitz gutxi. Eta lanbide guztiak praktikoak dira, baina psikologia «beste edozein baino gehiago». Ez dago era zehatz bat gauzek funtzionatzeko. Hanka sartuz ikasten da. «Orduan, karrera eta gero gehienok master praktiko bat ikasten dugu non azaltzen diguten nola izan psikologo. Zergatik ez du eskaintzen Psikologia fakultateak praktika errealak egiteko aukera?», planteatu du.

Dioenez, orain ematen dituen praktiketan ikasleak ez du terapia oso bat jarraitzen eta ez du aukerarik izaten korronte ezberdinak arakatzeko. «Nahiko hankamotz gelditzen da. Osasun publikoan egiten diren praktikak direnez, 50 minutuko saioak izaten dira hilabetean behin. Beraz, gehienez bi aldiz ikusten duzu pazienteak zure praktikaldi guztian. Gainera, ez duzu praktikatzen, ikusi egiten duzu bakarrik».

Hortaz, hagitz garrantzitsua iruditzen zaie Psikosolidarioak sareko partaideei praktikak bultzatzea, falta hori sumatu dutelako. Psikologiako azken kurtsoetan daudenei edo bukatu dutenei irekita daude. Zailtasun bat dute: paziente gehienek ez dute terapeutaz aparte beste pertsona bat egoterik nahi, eta, terapeuta batzuek, ere ez. Baina hori konpontzeko bere burua eskaini du esperientzia handiko terapeuta batek. Beste bi terapeuta bata bestearekin lanean ari direla, berak ikuskatu egiten du saioa eta une batzuetan gelditu egiten du hartu-emanen zer pasa den aztertzeko. Aurki jarriko dituzte martxan praktika hauek.



zienteak, baina irits daiteke momentu bat lan profesionala oztopatzen ahal dutena eta horregatik lokal baten bila dabilta. Donostialdearekin harremana duten pertsonak dira... oraingoz. «Proiektu txikia da eta zeinek daki etorkizunean zer gertatuko den. Jendea animatzen dugu beste tokietan halako zerbait egitera. Gure ideia ere Madrilgo beste batetik jaio zen».

BURUKO GAITZ NAGUSIAK

Daturik ez du eta bere pertzepzioa da Trekuk azalduko diguna. Berak ikusten duenaren arabera, depresioa, antsietatea eta beldurra dira zailtasun nagusiak. «Depresio tasa igo egin da eta egoera ekonomikoak badu horretan eragina. Desesperazioak depresiora eraman zaitzake. Antsiolitikoen eta antidepresiboen kontsumoa ere dezente igo da eta hori bai da datu estatistikoa».

Horregatik, inoiz baino garrantzitsuagoa eta urgenteagoa deritzo arreta psikologiko dohaineko eta kalitatezko bat emateari. «Zoritxarrez, ez dago eta instituzioei eskatu nahi diegu psikologia aintzat hartzea eta psikiatria gutxitzea. Osasun publikoan osagarri bezala hartzen da psikologia, ez du bere entita-

te propiorik, ez du izan beharko lukeen pisurik».

Agertu duenez, psikiatra bakoitza desberdina da eta badira terapia egiten dutenak, «baina askok egiten duten lana, arrazoi askorengatik –denbora gutxi dutelako, gaitasun falta dutelako...– pilulak errezetatzearena da. Kanpotik ikusita ematen du arazoa txikitu dela, baina sakonakonean ez da konpondu. Konpontzeko aurrena kontzientzia esnatu behar da. Jende asko dago drogatuta eta horrela kontzientzia lo egoten da. Pertsona ahalik eta lasaien egotea eta ahalik eta arazo gutxien ematea lortzen da».

Psikologiak zer egiten du? «Emozioetara jotzen dugu. Emozioak ukitzen dituzunean

«Osakidetzak ematen duen psikologia zerbitzua ez da gutxienekora ere iristen, ez denbora aldetik, ez sakontasun aldetik ez profesional kopuruaren aldetik ere»

«Orokorrean, osasun publikoak arazo mentalekin eta emozionalekin egiten duena lokartzea da, ez konpontzea. Horrela gaude gauden bezala. Gizartearen isla bat da»

Antsiolitikoen eta depresioaren aurkako pilulen kontsumoa goititu egin da azkenaldian.
PURESTOCK

horietaz kontziente zara. Zergatik zauden horrela ikusten duzu eta alda dezakezu. Aldaketa horiek, batzuetan, ondorio negatiboak izan ditzakete sistemarentzat. Pertsona batek esan dezake: ‘Nazkatu naiz, lana utziko dut’. Konformismoa esnatzen du. Nik uste hortik ere badatorrela pilula emate masiboa eta psikiatria psikologia baino askoz onartuagoa izatea. Orokorrean, osasun publikoak arazo mentalekin edo emozionalekin egiten duena lokartzea izaten da, ez konpontzea».

OSAKIDETZA, HANKAMOTZ

Hilabetean behin 50 minutuko saio bat, hori da Osakidetzak ematen duen zerbitzua. «Edozein psikologok daki, han lan egiten dutenek barne, hori ez dela gutxienekora ere iristen», gaitzetsi du Lide Trekuk.

Erantsi duenez, psikologo gutxi daude sistema publikoan. «Bertan egoteko ikaragarritzko frogak pasa behar dituzu eta oso plaza gutxi daude –loteria tokatzeko aukera berak dituzu–. Orduan, asko ez gara saiatu ere egin. Zaila izateaz gain, baldintza horietan arituz non gelditzen da profesionaltasuna?».

Psikiatren plazak, ordea, «askoz gehiago» dira. Hala, arlo pribatuan lan egin behar dute psikologo gehienek. «Nahiko nuke osasun publikoan lan egitea. Uste dut gizarte segurantzaren barruan egon beharko genukeela, osasuna ematen baitugu».

Dioenez, AEBetan Psikologia Medikuntzaren mailako zerbait da, errekonozimendu berekoa. Hemen ez da hala. Zergatik? «Psikologiak urte pila darama zientzia bihurtu nahian eta segur aski ez da inoiz bihurtuko oso zaila delako prozesu terapeutiko batean gertatzen dena kuantifikatzea. Frogatuta dago funtzionatzen duela, baina zergatik funtzionatzen duen esatea zailagoa da».

ONARPEN FALTA, ARAZO ITURRI

Erran bezala, hurrekin lan egiten du Trekuk eta euren zailtasun nagusiez galdetu diogu. Arazo gehienak onarpen faltagatik datozela deritzo. «Haurrak

inguruko helduen arabekoak dira. Helduek maite badute maitatua sentituko da eta autoestimu altua izango du. Onartzen badute onartua sentituko da eta bere buruarekin gustura egongo da. Onarpena eta maitasuna falta direnean etortzen dira arazoak. Antsietatea izan daiteke, ohean pixa egitea, beldur oso handiak, eskola porrota... Denak datoz oinarri beretik, eta, gehienetan, familiaratik», hasi zaigu esplikatzeko.

Eskolan egiten dena da irudikatu eta alarma ematea dela dio: “Haur hau ez dago ondo”. Gertatzen da autoestimu altua izatea, familian gustura egotea eta eskolara joan eta inguruko haurrek ez onartzea eta *bullying*-a jasatea ere.

Oiartzunen bizi den terapeutak jolas terapia lantzen du, eta, dioenez, jolastuz gehiago ezagutzen da pertsona bat elkarriketara luze batean baino. Baina helduok hagitz noizean behin jostatzen gara. Jolasari garrantzia kentzen diogu.

JOLASA, HAURREI LAGUNTZEKO

«Haurren kasuan hil ala bizikoa da, jolasten ez duen haur batek ez du bere burua eraikitzen. Jolasa errepresentazio bat da, bizi dudana eta bizi nahi dudana. Jolasaren bidez esperimendatu egiten du umeak hori. Gainera, haurrak gauzak ulertzen ditu jolas klabeen. Esplikatzeko badiozu zer den tratatu txarra, ahoz esan dezake ulertu duen ala ez, baina berekin jolastuten bazara bi panpinek batak besteari tratatu txarra emanez seguru barneratuko duela», jarri du adibide gisa.

Horregatik, jolasa hurrei laguntzeko era bakarrenetakoa dela nabarmendu du. Ez da auzartzen bakarria dela erratera, baina berarentzat hala da. «Umearen unibertsoan sartzen zara eta berari laguntzeko bere parean jarri behar duzu».

Egunero ikasten du txikiekin jolasak ze botere terapeutiko duen eta ze gauza sakonak ateratzen diren. Gertatzen zaizkion gauzak jolasean irudikatzen ditu haurrak. Eta terapeutak, jolasean, bidean laguntzen dio.

Psikologoaren arabera, haurrek gaitasun handia dute beren burua osatzeko, helduok baino handiagoa, izan ere, konektatua go daude beren izaerarekin, barne izaera autentikoarekin. «Gure buruarekin erabat konektatuak jaiotzen gara eta konexio hori eten daiteke ala ez gure inguru-nearen jarreraren arabera».

Trekuk esplikatzen du umeak aunitzez hurbilago daudela beren beharretatik eta badakitela nortzuk diren eta nora joan nahi duten, helduok baino gehiago. Agian ez dakite ahoz adierazten, baina bai beste era batzuetara, jolasaren edo artearen bidez adibidez. «Badakite nortzuk diren eta nora joan nahi duten, baina askotan ez diegu uzten». Horregatik, prozesu terapeutiko hauetan aurrerapausoak ematea errazagoa da. Batzuetan 3 urterekin deskonexioa eman da dagoeneko, baina urte gutxi pasa direnez errazagoa da itzultzea. Helduok kapa gehiago kendu behar ditugu.

Trekuk 3 urtetik 16 urte arteko haurrak hartzen ditu. Agertu duenez, nerabezaroa lehenago hasten da orain, 16ak lehengo 18ak bezala dira gauza batzuetan: «Dialektika mentala, diskurtsoa,

arrazoitzeko gaitasuna, beren buruaren pertzepzioa...». Aholku gisa, erran du haur bat psikologorengana eramatean psikologoa arlo horretan espezializatu eago-tea bilatzeko.

ETORKINENTZAKO ATEA

Bertze kolektibo batez ere itaundu dugu Psikosolidarioak sareko kidea, etorkinez. «Nahiko penagarria da egoera beren zaintza psikologikoari eta, orokorrean, beren osasun zaintzari dagokionez», erantzun du. «Ez bazaude errolatuta eta ez baduzu paperik urgentziatzko zerbitzuak jasotzeko aukera soilik duzu eta horien barruan ez dago osasun mentala. Bigarren mailako herritarrak dira».

Gainera, immigrazio prozesua bera gogorra izan daiteke eta batzuek laguntza behar dute. Ez dago horretarako zerbitzurik, ordea. Eta «besteok arazo ekonomikoak baditugu, etorkinek oraindik gehiago, zailtasun gehiago dituztelako lana topatzeko eta kalitate gutxiagoko lanak aurkitzen dituztelako. Osasun publikotik kanpo zerbitzua bilatzea oso-oso zail dute». Hor-taz, Psikosolidarioak ate bat da



Jolastuz elkarrizketa luze batean baino hobeki ezagutzen omen da pertsona bat. THINKSTOCK

Lide Trekuk jolas terapia lantzen du. Dioenez, jolasari garrantzia kentzen zaio, baina haurrentzat hil ala bizikoa da: jolasten ez den haur batek ez du bere burua eraikitzen

Etorkinen egoera «penagarria» da osasun zaintzari dagokionez. Paperik ez dutenek urgentziatzko zerbitzuak jaso ditzakete soilik eta horien barruan ez dago osasun mentala

eurentzat. Orain artean etorkin bat hartu dute.

Osasunak unibertsala izan behar duela aldarrikatuz eta sarera gonbidatuz agurtu da Treku. Terapeuta, paziente, ikasle edo interesa duen oro animatu du. Hona harremanetarako bideak: psikosolidarioak@gmail.com, [Facebook.com/psikosolidarioak/?fref=ts](https://www.facebook.com/psikosolidarioak/?fref=ts) eta Psikosolidarioak.org ataria.

Osatze prozesua(k)

Saioa Iraola

Osatze prozesua bide politiko kosmiko gisa ulertzen du Lorena Cabnal Guatemalako feminista komunitarioak eta emakume militante maixinkak. Hitz horiek entzun nizkion orain dela urtebete, baita berriki ere Feministaldian. Txundituta utzi ninduten haren teoriak eta praxiak. Eta balio izan dit sentitzen dudana-ri zein egiten saiatzen garenari hitza jartze-ko.

Euskal Herrian, gatazkaz baino, gatazkez hitz egiten dugu feministok, askotariko gatazkak problematizatzea ezinbestekoa dela iritzi diogulako justizia sozialean oinarritu-tako beste jendarte eredu bat sortzeko: Eus-kal Herria, euskal estatu feminista bat sor-

tzeko. Urteak daramatzagu bide horretan fe-minismotik eragiten, gaur egungo egoera gure aurrekarien lanaren emaitza baita. Bai-na aurrerabide horretan, gure gorputzetan, komunitatean, lurraldean zein mentalitate-an eragin duten gatazken –nagusiki patriar-katuaren–, gatazka politiko armatuaren zein klase gatazkaren saminak, minak, orbanak, zauriak sendatzea prozesu indibidual eta kolektiboa dela pentsatzen dut, eta, horrega-tik, espazio anitzetan osatze prozesu parale-loak bideratzeko beharra dugula sentitzen dut; terapia indibidual, pertsonal eta intimi-zatuak, kolektibizatze eta duten dimen-tzio politikoa egikaritzeko. Konponbidea ez delako soilik indarkeria jakin batzuk (esta-


tua eta borroka armatua) desagertzea, edota indar militar okupatzaileak kanporatzea, egitura administratibo-politiko bat erdies-tea edota armagabetzea. Hori guztia bada, baina bada, baita ere, despatriarkalizazioa, bada gizonen boterearekiko zein indarkeria-rekiko duten monopolioa des-egitea, bada ingurugiroa suntsitzearen eta ustiatzearen ondorioez jabetzea eta osatze bat abiaraztea.

Gatazkek zeharkatutako gorputzak garen kontzientziatik osatzea oinarri duten ekinbi-de kolektibo eta politikoen bidea arinduko digute elkarri entzunez, begiratzuz, sentitu dugunaz hitz eginez eta elkar aitortuz. Osa-tzea da bide horretan dugun beste erronke-tako bat. •

iRRITZIA:



Unai
Iturriaga



GANADURIK GABE, ZER?

Behi, zaldi eta ardiek mendietako larreak mantentzeko betetzen duten funtzioa

📁 **INGURUMENA** / Nagore Belastegi Martin

Euskal paisaiaren koadro bat pintatzeko eskatuko babiligute, norbaitek kostalde urdin bat pintatuko luke agian, iluntze laranja bat eta hodei lodi grisak urrunean. Mendi magal bat pintatzea erabakiko du beste norbaitek, zelai bat. Ardiak, zaldiak eta behiak marraztuko ditu. Izan ere, hain ezaguna zaigun azken euskal paisaia tipiko hori edonon aurki dezakegu eta gure kulturaren parte ere badela esan dezakegu. Baina egungo bizimodu eta erritmoak artzaintzaren behe-erakada ekarri du, eta horrek ondorio desberdinak ekar ditzake. Galera kulturala agerikoena bada ere –nolakoa izango litzateke Euskal Herria mendietan abere-rik egongo ez balitz?–, galera sozioekonomikoa ere garrantzitsua da, eta, nola ez, baita ekologikoa ere.

Azken puntu horren inguruan gogoeta egiteko, EHuko hainbat ikerlarik ikerketa bat hasi zuten 2005ean. Orain, hamar urteren ostean, emaitzak bildu eta “Applied Soil Ecology” sona handiko nazioarteko aldizkari zientifikoan artikulua bat argitaratu dute honako izenburuarekin: “Atlantikoko mendietako larreetan artzaintza desagertzearen inpaktua landare eta lurzoruko mikrobio komunitateetan”. EHuko Landareen Biologia eta Ekologia Saileko lantaldea Neiker-Tecnaliako hainbat kiderekin aritu da elkarlanean ikerketaren atal batzuk aztertzeke.

Arantza Aldezabal taldeko ki-deak kontatu digunez, 2005ean ikerketa martxan jarri zuten artzaintza desagertuko balitz zein modutan eragingo lukeen jakin nahi zutelako. «Zerbait dugun bitartean ez dugu baloratzen baina galtzen dugunean konturatzeko gara zer genuen, eta askotan berandu izaten da jada berreskuratzeko», nabarmendu du adituak.

Aldazabalen esanetan, zorio-nez Euskal Herriko haran atlantikoetan nahiko ongi ari da mantentzen mendietako abeltzaintza. «Oraindik mendira

Lanbide gogorra da abeltzainarena. Kostuak handiak dira eta etekinak gero eta txikiagoak. Gutxi batzuk bakarrik daude ofizioarekin jarraitzeko prest eta pixkanaka desagertzen ari da. EHuko ikerlari batzuek, ordea, abeltzaintza desagertuko balitz jasango genituzkeen galerak aztertu dituzte muturreko egoera hori simulatuz.

igotzen diren artaldean esneaz gazta egiten da eta hori salduz badirudi artzainek nahiko ongi mantentzen dutela beraien sistema, ekonomia nahiko sostengarria izatea lortu dute. Baina Araba aldera joaten bagara artaldeak galdu egin dira jada. Es-

kualdearen arabera, aldakorra da egoera, baina artzaintzaren galera da joera orokorra», azaldu du Aldezabalek.


Hori gertatzearen arrazoi nagusietako bat bada gizartearen aldaketa, gazte gutxi baitaude lanbidearekin jarraitzeko prest.

Itxitura bateko lurzorua aztertu eta abereak ibiltzen diren larreetan dagoenarekin konparatu dute ikerlariek.
EHU

Abeltzainek familian ez badute ofizioarekin jarraitzeko prest dagoen gazterik, baliteke artalde bertan behera gelditzea. Baina arrazoi ekonomikoak ere badaude: «Europar Batasunetik gero eta diru laguntza gutxiago jasoko dira jarduera honetarako. Neurri handi batean gaudua mantentzen duen abeltzainak aurrera jarraitzea lortzen du subentzioei esker».

BI NORABIDEKO BORROKA

Muturreko egoera bat irudikatu nahi izan zuten ikerlariek, eta, horretarako, 50 x 50 metroko bi itxitura prestatu zituzten. Bata Oidun, 890 metroko altueran, eta bestea Alotzan, ia 1.300 metrora. 2005etik 2015era bitartean itxitura horietan abererik ez sartzea zen xedea hamar urte horietan lurzorua nola aldatzen



zen ikusi ahal izateko. Larratzea normaltasunez gauzatu den gainontzeko guneekin konparatu dute orain.

Lurzoruari dagokionez, honen testura, pH maila, hezetasuna eta tenperatura neurtu dituzte 10 zentimetroko sakontasunean. Mikroorganismoen jarduera eta dibertsitate genetikoan emandako aldaketak ere aztertu dituzte. Ikerlarien hipotesia zen «airean edo landaredian ikus zitezkeen aldaketek eragina izan zezaketela lurzoruko mikroorganismoen garapenean», eta ez zeuden oker.

«Abereak ez dabilzan zonaldeetan, landarea ez denez ber-

tatik erausten, material hori metatzen doa itxituren barruan. Metaketa horrek geruza potolo bat osatzen du, isolatzaile lana egiten duena. Isolamendu horrek erakartzen du lurzoruko tenperatura nahiko konstante mantentzea eta nahiko independente inguruan dagoen tenperaturarekiko. Aldiz, geruza hori askoz finagoa da abereak dauden lekuetan. Egunean zehar ematen diren tenperatura aldaketak askoz gehiago islatzen dira lurzoruan», azaldu du EHUKo adituak.

Gainera, «artzaintza bertan behera uzteak mesede egiten dio Poaceae eta Ziperazea familiako espezieen hazkundeari,

Abereak ibiltzen ez diren larreetan landare geruza bat osatzen da. Landare geruza horrek isolatzaile moduan jokatzen du, lurzorua tenperaturari eraginez

Artzaintza pixkanaka galtzen ari da. Zorionez, Euskal Herriko haran atlantikoetan artzaintzak oraindik ere osasun ona dauka eta abeltzainek aktibitate horretan jarraitzeko modua dute



Lurzoru zati bat belar eta guzti, lagin modura balio izan diena. EHU

hau da, gramineei». Belar mota horiek oso lehiakorak dira eta hirusta zuria bezalako espezien zabalkundea saihesten dute. Gramineak biomasa kopuru handia sortzen dute eta landare-mantu lodia osatzen dute, tenperatura goxoa eta hezetasuna mantenduz. «Baldintza horietan, mikroorganismoek gehiago arnasten dute, eta horrek esan nahi du aktiboago mantentzen direla. Horrek ekartzen du CO₂ emisio gehiago egotea. Larratze guneetan CO₂ emisioak txikiagoak dira, nahiz eta biomasa gehiago egon; larratzerik ez den lekuetan, berriz, biomasa txikiagoa da baina mikroorganismoek gehiago arnasten du, azeleratuago biziko balitz bezala».

Mikroorganismo horiek elikagaien zikloan parte hartzen dute, abereak bezala, eta elkarri eragiten diete, nahi gabe bada ere. Abereak belarra jaten dute eta gorotzen bidez itzultzen dituzte elikagaiak lurzorura, deskonposatuak izan daitezten. Mikroorganismoen lana da hori. Modu aproposan aritzen badira, lur horretan hazten den belarra kalitate onekoa



EHUKo Landare Biologia eta Ekologia Saileko kideek osatutako lantaldea. Arantza Aldezabal ezkerretik hasita bigarrena da. EHU

da. Beraz, larratzea ematen den guneetan dagoen belarra balio nutritibo handiagokoa da.

LURRAREN TRINKOTZEA

Garaiera desberdinetan kokatu zituztenez itxiturak, garaiera bera ere faktore bat den ikusi ahal izan dute. Izan ere, ia 1.3000 metroko altueran dagoen Alotzako itxituran landare-dian aldaketak ez dira hain nabarmenak izan, eta, gainera, gramineoen nagusitasuna astiroago burutzen dela ikusi dute.

Belarra aztertzeaz gain, lur-zoruaren beraren kalitatea ere kontutan izan dute gainazalaren azpian zer gertatzen den ikusteko. Horretarako lurraren trinkotzea neurtzeko balio duen aparatu bat erabili dute. Zulatzeko makina baten antzekoa da gailua eta bere funtzioa da neurtzea ea sakonera batean jaisteko zenbateko indarra egin behar duen.

Ikerketarako zero eta hamar zentimetro arteko sakonera neurtu dute aparatu horrekin. «Ikusi dugu trinkotzea askoz ere handiagoa dela larratze gunean, itxituretan trinkotze lan



Urbian ibiltzen den artalde bat, bertako eskorta batean. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

hori murriztu egiten dela», nabarmendu digu EHuko ikerlariak nazioarteko aldizkarian argitaratu duten artikulua irenildu nagusiak laburtuz.

Behin artzaintzaren desagerpenak ekologia eta ingurumen mailan izango lituzkeen ondorioak frogatuta, ikuspegi handiagoa izan nahi izan zuten

EHUko landaldeko kideek eta Neiker-Tecnaliarekin harremanetan jarri ziren arlo sozioekonomikoa azter zezaten. «Argi dago egiaztatutako efektuek

ondorio globalak dituztela. Katetako prozesu bat da, interakzio konplexuz betetakoa, esnea eta gazta bezalako mendiko elikagai tradizionalen kalitatean eta produkzioan ere ondorioak izan ditzakeena. Horregatik, hain zuzen beharrezkoa da zehaztea zein punturaino eragingo duten artzaintza sistemaren osotasunean», azaldu du Aldazabalek.

Zentzu horretan, baieztatu du «artzaintza bertan behera utzita landare espezie batzuk desagertu» egingo direla. Baina ondorioak askoz larriagoak dira: «Artzaintzaren gainbeherak eta gramineoen nagusitasunak larreen kalitate nutritiboaren jaitsiera dakarte, eta horrek ardi latxen artzaintza baldintzak kaltetuko ditu, artzainen lanera ere ondorio negatiboak ekarritik, baita nekazaritza gune jakinen ekonomiara ere».

Egoera hori saiheste aldera, analisi orokor batean murgildu dira EHuko ikerlariak eta egoera desberdinak irudikatzen ahaleginduko dira, «egoera kudeatzeko erabaki zuzenak hartzen laguntzeko».

Deskonexioa

Joxean Agirre

Bati baino gehiagori entzun diot katalanek azkenaldion darabilten “deskonexio” terminoa atsegin zaiola esaten. Hitz sinpatikoa bada, baina ez dut uste errealitatea adierazteko guztiz egokia denik.

Giza harremanen arloan, orain hamar bat urte, Bauman eta maitasun likidoaren teorikoak izan ziren terminoa erabiltzen lehenak. Ziotenez, gaur egungo maitasun harremanak likidoak dira, arinak eta batez ere laburrak. Bikoteen orde zureak daude. Zu konektatu egiten zara eta, gaizki badoakizu, zure bikoteak aspertzen bazaitu, des-konektatu egiten zara. Harreman desatsegina oximoron bat da. Desatsegina bada, konexioa itzaltzen duzu eta kito. Eta deskonexioak, noski, parekidetasuna suposatzen du.

Kataluniak abiatu duen prozesua, ondorioz, ez dut uste deskonexioa izan daitekeenik, izatekotan ere dibortzio gordin eta

gogor bat izango da, XIX. mendeko eleberri bat idazteko modukoa seguruena.

Gauza hauek esateak lotsa pixka bat ematen du, gutako inork ez baitaki zer arraio gertatuko den Katalunian, baina mundu guztia prozesuari buruzko aditu bilakatu den honetan jarrai dezagun politikak fikzioa egiten: *el procrés* deituaren hitz giltzarria, beraz, ez da deskonexioa izango, desobedientzia baizik, une batetik aurrera agintari, funtzionario eta herritarrek hasi beharko baitute epaitegietatik datozkien aginduei iskin egiten.

Eta aski da. Zein gorrotagarria den beste herrialde baten jardun politikoari buruzko tonu hau, garai batean Espainiako zutabegileek Euskal Herriaz erabiltzen zutena. Nik ez daukat katalanei erakusteko ezer, mirespena ez bada. *El procrés* delakoa gure belaunaldiak (gerra ondokoak esan nahi dut) ezagutu duen gertakari politikorik garrantzitsuena dela iruditzen zait. Inbesti-

dura egunean Parlamentuaren atarian bilatu zirenen artean bi euskaldun agertu ziren ETBko kameran aurrean harro asko, eta nik ere han egon behar nuela sentitu nuen.

Oso gaztea nintzela gogoan dut gramatika bat erosi nuela katalana ikasteko asmoarekin. Orain alfertuegia nago gramatika batekin hasteko, baina katalan telebistara joaten naiz tarteka eta gaztelaniaren pare ulertzen ote dudan nago batzuetan.

Arestik esaten zuen euskaldun izaera ukatzen bazioten berak galego izan nahi zuela. Nik, kasu horretan, Europako iparraldeko herriak aipatzen nituen oraindai-nokoan. Iritziz aldatzeko ordua iritsi zaidala uste dut eta euskaldun ez izatekotan katalana izan nahi nuke. Badago sedukzioaren arte bat, literaturan asko landu dena eta politikan euskal alderdi batzuek erabili dutena. Badago, ordea, zailagoa den arte bat: deskonexioaren artea da eta horretan katalanak gidari ditugu. •



Gaizka Amondarain
Irakaslea

«Hasteko sakatu edozein tekla»

Gero esateko moduan hemen ez dela ezer aldatzen inoiz. Dena, eta denok, etenik gabeko mudantzan gabiltzanean. Asko dira esandakoa frogatzeko eman genitzakeen adibideak, baina, karaktereen diktadura arau, horietako esanguratsuenak aukeratu ditugu okasiorako.

Lehenak Britainia Handiko Solihull herriko lantegiraino garamatza. Aurten utziko baitiote bertan, umetako abestiarri esker, hain gure bihurtu genuen Land Rover edo “ranroberra” fabrikatzeari. Merkatua irauli zuen lehen 4x4 ibilgailuak ezin izan du egungo baldintzetara behar bezala egokitu eta, ondorioz, 68 urteren buruan, autoaren produkzioa bertan behera utziko dute ingelesek.

Ez da, haatik, azkenaldian merkatura egokitzeak zailtasunak izan dituen bakarra. Orain dela 160 urte sortu zen Tolosako Elozegi txapel enpresa ezagunak, salmentak areagotzeko helburuz, “betiko euskal txapela” gaurkotzeko saiakera egin baitu berriki. Hala, euskal txapelari bisera itxura emango diote aurrerantzean, tradizioaren ikur den txortena mantenduz, noski, orain artekoarekin uzkur ageri ziren gazteak, epe motzera, “bohemioa eta moderno” uztartzen dituen berria janztera animatuko direlakoan.

222 urterekin Euskal Herriko gorputz polizial zaharrena diren miñoiek ere ezin izan diote tentazioari eutsi, eta, hain berezi egiten zituen kaki koloreko uniformeak betiko eskegiko dute aurki. Ertzainen trajearen antzeko batekin ikusi ahal izango ditugu hemendik gutxira, Arabako errepideetan zehar modeloak bailiran desfilatzen.

Gauza guztiek dutelako bere iraungitze data. Baita “Goenkale” telesailak ere. Pentsa, 25 urte eta gero, finitu zaizkigu arraldetarren gorabeherak. Eta are sinisgaitzagoa dena, “Goenkale” berarekin egin ostean, “The Simpsons” telesaila ere uztekoan direla zabaldu da medioetan. Domino efektuak ez du inor erruki. Agur Arralde! Bye bye Springfield! Sayonara Mas!

Eta aurrekoekin nahikoa ez balitz, urtea hastearekin bat, Patxi Lopez par-

lamentuko presidente izango dela iragartzen digute Madrildik. Zentzu horretan, ez dakit baikorregia izateko moduko albiste den. Niri, behinik behin, Lopezen aurpegia ikusten dudana bakoitzean, Basagoitik Homer Simpsonekin parekatuz egin zituen adierazpenak etortzen baitzaizkit gogora. Eta bereziki, Homer ordenagailuaren aurrean eseri eta pantailan “Hasteko sakatu edozein tekla” esaldia irakurri ondoren, desesperatuta, “edozein” jartzen duen teklaren bila hasten den eszena ahaztezin hori. Saiatuta ere saihestu ezin dudana zerbait da.

Patxi Lopezek eta Homerrek bakarrik ez, David Bowie berak ere bazekien zer edo zer denboraz eta aldaketez 1972an “Changes” abestia argitaratu zuenerako: «(...) denbora etor daiteke ni aldatzera, baina nik ezin dut denbora aurkitu (...)». Edo Heraklitok, bide beretik, mende batzuk lehenago, baieztatu zuenean inork ezin duela bainatu bi aldiz erreka berean, bigarrenaz sartzean erreka ura ez delako bera izango, eta, erreka bera ere ez, ondorioz. Aldatu den zerbaiti,

azken batean, ezin diogulako lehen bezala deitu. Azken hori ez dakit oso argi geratu zaidan, baina pasatzen utziko dugu gaurkoz.

Gaur-gaurkoz argi daukadan gauza bakarra zera baita: batzuentzat Jesukristo gurutzera -lapurren artean- igo zenean hasten dela historia. Beste batzuentzat, aldiz, Leninek -euskal txapela kenduz- “Botere osoa sovieterako” deiadar egin zuenean Finlandia-ko geltokian. Xabier Montoiarentzat, David Bowiek ilea moztu zuen egunean bertan. Niretzat “Goenkale”-ko Maria Luisa hil zen arratsalde hartan. Hori baitu denborak bere joanean, harrapaezina dela. Baita itxura aldaketak hain gustuko zituen Bowierentzat ere, agidanez.

Gauzak horrela, leihotik txantxan-gorriari begira geratzea da aukeretako bat. Bestea, garabi batean igota errekan behera hiltzeko beldurrez zihoala Homerrek erruki eske botatako hura: «Normalean ez dut otoitz egiten, baina, hor bazeude, otoi, erdu ni salbatzera Superman!». •



Hori baitu denborak bere joanean, harrapaezina dela.

GAUR8

{ koaderno } Iker Barandiaran

Moden pilotakadak

Badira guztia asmatuta dagoela diotenak. Baita gizakia behin eta berriro harri berdinarekin estropezu egitea gustuko duen animalia bakarra dela esaten dutenak ere. Ohituradun animaliak garela dionik ere bada. Konfort egoeratik ateratzen gaituen guztiak zorabiatzen gaituela. Eta noizbehinka armairuaren barrenean dugun hori berriro ere, beste izen batekin, airatzeko barne premia izan ohi dugula. Izan ere, alor askotan, ugari-tan, lehengora, hastapenekora itzultzen gara behin eta berriro, gure burua engainatu asmoz beste testuinguru bat, beste tonalitate bat edo beste diskurtso bat asmatzen badugu ere.

Musikan, esaterako, emanaldi biluziak ziren 70eko hamarkadan gure artean egiten zirenak; akustikoak eta neurri oso handi batean folkiak. Ahotsa, melodia eta mezua nagusitzen ziren horretan guztian. Gazte zein nagusiek gogoz jarraitu eta gozatzen zituzten emanaldiok eta horien parte sentitzen ziren, horrekin identifikatu, baina bat-batean gazteek horiek alboratu zituzten; energia gehiago eta mezu indartsuagoak behar zituzten. Ordu-tik belaunaldi berri askoren artean estilo arkaiko eta tradizionaltzat hartu izan da folka luzaroan. Gero etorri ziren rocka, punka eta soinu barnerakoi eta erasokorrak, jendearen erreakzioa lortzen zutenak. Eta, aldi berean, mezuak kasu gehienetan zorrotzak ziren, mingarriak, belaunaldi berri horren testuinguru eta nahiak plazaratzen zituztenak. Bidea egin da ordu-tik eta gauza asko, orain esan ohi den bezala, lausotu egin dira.

Korrante horren guztiaren kontra badut lagun bat, nafarra ez bada ere, sustraletako musika izugarri maite duena: rantxerak, folk irlandarra, euskalduna, flamenkoa... Ez ditu sofistikazioak maite, baina txoratzen du lur bati errailetatik lotutako jatorrizko musikak. Arrazoi horregatik adar jotze asko bizi izan ditu eta bizi izaten ditu oraindik, baina konbikzio handiz pentsatzen du horrela.

Eta, hara non, 40 urte pasata, azkenaldi honetan gazte moderno eta sofistikatuenean, hipsterrek eta olatu horri jarraiki eroso dauden askok eta askok egun batean bai eta hurrengoan ere bai folka erribindikatzeko duten autentikoen bailitza. Ze hipokritak garen! *Americana*, *country* eta orain folka bere horretan! Eta ingelesez abestuta izan beharko gainera... Hala, mezuak ez du in-

porta eta ulertzen ez bada hobeto! Izan ere, posea da garrantzitsua: *grunge*-arekin erabilitako alkandorak berreskuratu ditugu, eta, lehen etorkizun-ezta-itxaropenik gabeko gazte nihilista borrokalariak zirenak langido eta erdi suizida bilakatu ziren bezala, oraingo txanda AEBetako estatu bakartienetako bidelapurrena kasik.

Txanponaren beste aldean Oskorri daukagu, tradizio eta eskola bateko lekuko fidel eta langile prestua izan dena. Ikus-entzule fidel baina mugatu batentzat –eta ez espresuki gazte bizardun modernoan gozamenerako-folkaren, gure sustraletako musikaren, tradizioa ikertu, azaleratu eta galbidetik behin eta berriro atera duena, alajaina. Orain, desegin berri –askotan gertatu ohi den moduan– emango dio jendeak izan duen garrantzia. Baina ja beranduegi da!

Musikak izan duen bilakaerari jarraituta, lan luzea izan zen Euskal Herrian –beste leku eta alor askotan bezala– kontzertuak ondo egitea lortzeko: azpiegitura txukunak prestatzea, egituratzea eta antolatzea, hain

Txanponaren beste aldean Oskorri dago, tradizio eta eskola bateko lekuko fidel eta langilea. Folkaren, gure sustraletako musikaren, tradizioa ikertu, azaleratu eta galbidetik behin eta berriro atera duena

zuzen ere. Gogora dezagun aurreneko emanaldietako asko eta asko –folkiak, rockeroak zein punkak–, besterik ezean, pilotalekuan egin ohi zirela. Eta pilotalekuen sonoritatea txarrena izateagatik agian horregatik izango dira gure artean punta-puntako soinu teknikariak, baldintza txarrenetan taldeak behin eta berriro salbatzen ahalegindu zirenak, hain zuzen ere. Baina zeinek daki, baliteke pilotalekuan berriro kontzertuak egiteko ohiturak indarra hartzea. Hain xelebreak dira gure buruari ezartzen dizkiogun modak! A, ez, barkatu, nagusitzen ari dena jende oso gutxiko kontzertuak dira: batzuetan halabeharrez, eskaintza eskaera baino handiagoa delako eta konfort egoeratik ez irtearren; eta beste batzuetan lokal oso txiki-txiki oso jende gutxirentzat zuzendutako formatu txiki-kontzertuak ere modan daudelako. •

Igeriketa sinkronizatua emakumezkoen kirol moduan ikusi izan du makina bat pertsonak urteetan zehar, baina Pau Ribesek zailtasunak zailtasun erakutsi du kirolak ez duela sexurik eta edozein pertsonak edozein kirol praktika dezakeela. Alegia, emakume askok eta askok beste kirol modalitate batzuetan egin behar izan duten bide berbera jarraitu du, oztopoak eta aurreiritziak gaindituz.

Pau Ribesen saiakerak, gainera, saria izan du. Kataluniarrak historia egin zuen Gemma Mengual bidelagun zuela igeriketa sinkronizatuko Munduko Txapelketan lehenbizikoz abian jarritako modalitate mistoan bosgarren lekua lortuta. Halaber, berriki Txinan egon da World Trophy txapelketan Berta Ferrerarekin bikotea osatuz eta brontzezko domina kolporatuta egin zuten buelta.

Bidea ireki duzu igeriketa sinkronizatuan, izan ere, urteetan zehar jendeak emakumezkoen kirol moduan sailkatu izan du. Hala da. Gainera, igeriketa sinkronizatuaren kasua bitxia da, hasieran gizonetzkoak hasi zirelako kirol hau praktikatzen. Hala ere, gero joera hori aldatu egin zen eta gizartean bestelako ikuspegia egon da txertatuta.

Normalean horrelako egoerak emakumeekin gertatzen dira, zenbaitek artean arraro ikusten baitute emakumeek zenbait kirol praktikatzea. Zu, nahiz eta gizonetzkoa izan, txanponaren alde horretan zaude.

Emakume askok bidea egin behar izan dute eta baita nik bezala igeriketa sinkronizatua hautatu dugun gizonok ere, edota gimnasia erritmikoan eta patinajean dihardutenek. Nik uste dut gustatzen zaigun hori egiteagatik borrokatu behar dugula eta sexuak ez duela oztopo izan behar horretarako. Gainera, argi utzi behar da kirolak ez duela sexurik.

Zure lanak eta borrokak fruituak eman dituzte eta udaran Kazanen jokatu zen Munduko Txapelketan izan zinen historian lehenbizikoz abian jarri



«Bidea egiten ari gara, baina hasieran begirada txarrak jasan behar izan nituen»

PAU RIBES

IGERIKETA SINKRONIZATUA

Uretan dagoela «arnasa» hartzen omen du. Pau Ribes kataluniarra txikitandik eroso eta aske sentitu da uretan eta igeriketa sinkronizatuan. Gizonetzkoentzat itxita zegoen atea ireki du.

Mikel IBARGOEN

zen modalitate mistoan Gemma Mengualekin batera.

Oso momentu polita eta berezia izan zen. Nire ibilbidean zehar arazo dezente izan ditut lehiatzeko, izan ere, adin batetik aurrera arautegiak ez zigun baimenik ematen mutilei lehiaketetan parte hartzeko. Ondorioz, lehiatzeari uko egin behar izan nion eta bat-batean, Munduko Txapelketarako lau hilabete eskas falta zirenean, estreinakozen modalitate mistoa egongo zela iragarri zuten eta aukera berri bat sortu zitzaidan; ezin nuen alferrik galdu.

Aukera hori primeran baliatu zenuen Mengualekin batera bosgarren postua erdietsita.

Izugarri pozik nago. Alde batetik, lortu genuen emaitza ona izan zelako, eta, bestetik, gertaera historikoa izan zelako. Aurrerapau-soaren garrantzia agerikoa zen guztiontzat eta txapelketan zehar zegoen giroan ere nabaritzen zen hori.

Zer moduz moldatu zineten? Primeran. Hasieratik ondo ulertu genuen elkar eta niretzat oso lagungarria izan zen Gemmaren

maila eta esperientzia duen pertsona bat alboan izatea, ikaragarri lagundu zidan.

Zer sentitu zenuen igerilekura jauzi egiteko momentu iritsi zenean?

Munduko Txapelketa batean parte hartzea erantzukizun handia da eta tentsio puntu hori nabaritu nuen, baina Gemmarekin batera egoteak eta elkarri ematen genizkion animo mezuek barruan daramazun zama arintzen laguntzen dute.

Emaitzaz harago zer suposatu zuen zuretzat Munduko Txapelketa batean estreinakoz jokatzeko zen modalitate mistoko parte hartzaileetako bat izateak?

Oso berezia izan zen bai niretzat, baina baita gainerako gizonetzko igerilariarentzat ere. Beste herrialdeetako parte hartzaileekin esperientzia eta sentimenduak partekatzea eta jarraitu dugun bidea elkarri kontatzea oso polita da. Lehenbizikoz gauza horiek guztiak mutil gehiagorekin partekatzeko aukera izan nuen; aurretik nire taldekide diren emakumeekin baino ezin nuen egin hori.

Une horretan igaro zinen argitara, urte mordoa itzalpean egin ostean. Nolakoa izan zen zure hastapena igeriketa sinkronizatua munduan?

Niri txiki-txikitatiki gustatu izan zait uretan ibiltzea eta igeriketa sinkronizatua hasi aurretik ere igeri egitera joaten nintzen. Oso ume mugitua nintzen eta kontzentratzea ikaragarri kostatzen zitzaidan. Liburu baten aurrean jartzea amesgaizto bat zen niretzat, eta, uretan, berriz, beste ume bat nintzen. 7 urte nituenean gurasoekin “Sueños de agua” izeneko igeriketa sinkronizatuko ikuskizun bat ikustera joan nintzen. Han neskak eta mutilak zeuden, mutilak waterpoloko jokalaria ziren eta igeriketa sinkronizatuko oinarritzko mugimenduak egiten zituzten. Askok erakarri ninduen ikusita-koak eta probatzeko arrak sortu zitzaidan. Gurasoak ere jabetu

ziren ikuskizunak liluratu egin ninduela, eta kirolaren gaineko informazio bila hasi ziren klaseetara joateko aukera izan nezan.

Esan daiteke beraz, ura eta igeriketa sinkronizatua ihesbide bat izan zirela zuretzat?


Bai, zalantzarik gabe. Uretan lasai sentitzen nintzen, etxean bezala. Paradoxa bat eginez, uretan arnasa har nezakeela esan daiteke. Poza nabari nuen eta asko gozatzen nuen egiten nuen horrekin. Igeriketa sinkronizatua hasi nintzenean nire gurasoek esan zieten entrenatzaileei ikastolan kontzentrazio arazoak nituela eta kosta egiten zitzaidala azalpenak jarraitzea. Entrenamenduetan, ordea, adi-adi egoten nintzen eta ematen zizkidaten gomendio eta agindu guztiak jarraitzen nituen. Entrenatzaileak gurasoei horren berri ematean ezin zuten sinetsi. Ura zen nire mundua, eta hor zegoen gakoa.

Igeriketa sinkronizatua hasitakoan mutil bakarra zinen edo bazegoen besterik?

Ez, ez, ni nintzen mutil bakarra. Nire gurasoekin izena ematera joan nintzenean irakaslea ere harritu egin zen mutil batek igeriketa sinkronizatua egin nahi zuela entzunda, ordura arte beste mutilik ez zen gertatu eta. Nire gurasoek azaldu zioten ikuskizun bat ikusi eta asko gustatu zitzaidanez probatu egin nahi nuela, eta ez zuen inongo trabarik jarri. Entrenamenduetan eman nezakeen maila ona zela ikusitakoan Granollersko igeriketa klubera bidali ninduten nire garapena hobea izan zedin eta han ere ni nintzen mutil bakarra.

Arraro sentitzen zinen mutil bakarra izanda?

Inondik ere ez. Nire taldekideekin oso ondo moldatzen nintzen eta gustura nengoen. Halere, egia da momentu zailak igarotzea tokatu zaidala. Beti dago arraro begiratzeko dizun jendea edo desberdina



«Nire ibilbidean zehar arazo dezente izan ditut lehiatzeko, izan ere, adin batetik aurrera arautegiak ez zigen baimenik ematen mutilei lehiaketetan parte hartzeko»

«Munduko Txapelketarako lau hilabete eskas falta zirela estreinakoz modalitate mistoa egongo zela iragarri zutenean aukera berri bat sortu zitzaidan, eta ezin nuen alferrik galdu»

Pau Ribes eta Gemma Mengual, Kazanen jokatuako Igeriketa Sinkronizatuko Munduko Txapelketan. Lehen aldia izan da modalitate mistoa lehiaketan onartu dutena.
GAUR8

zarela esaten dizuna, baina zentzu horretan asko lagundu didate nire gurasoek, entrenatzaileek eta lagunek.

Zure ingurukoek, beraz, ondo ikusi zuten zuk zuek igeriketa sinkronizatua praktikatzeko.

Bai. Nire lagunek futbola eta saskibaloia bezalako kirolak praktikatzeko zituzten, baina ondo ikusten zuten ni neu igeriketa sinkronizatua aritzea. Bazekiten hori zela niri gustatzen zitzaidana eta gustuko zuten zertxobait desberdina zen lagun bat izatea.

Hala ere, esan duzu begirada arraroak eta momentu zailak igaro zenituela. Zer izan da entzun behar izan duzun gauzarik gogorrena?

Ba horrelakoetan ohikoak diren komentarioak egiten zizkidaten: beti neskekin ibiltzen nintzela esaten zidaten, homosexual gisa sailkatzen ninduten komentarioak jasan behar izan nituen, begirada txarrak...

Zuretzat ez zen egoera samurra izango.

Komentario horiei ez zaie jaramonik egin behar. Niri belarri batetik sartu eta bestetik irteten ziztazkidan. Lehen aipatu dudan moduan kirolak ez du sexurik eta hori argi eduki behar da. Bakoi-tzak gustatzen zaion hori egin behar du, eta horregatik borrokatzea funtsezkoa da. Gainerakoek esaten dizutenak ez du zure bidea eten behar.

Gurasoek amorrua sentituko zuten horrelako egoeren aurrean.

Nire aitak ondorengoa esaten zidan: «Beti neskekin zaudela esaten dizutenean esaiezu beraiek beti mutilekin daudela, eta, beraz, zuk haiek baino konpainia hobea duzula alboan» [kar, kar, kar].

Gurasoen berotasun hori funtsezkoa da, baina beti ez da horrela izaten.

Nik beti izan ditut nire alboan eta hori oso garrantzitsua izan da niretzat. Gurasoak dira umetan ditugun oinarri nagusiak eta horrelako egoeretan alboan egon behar dute. Niri beti esaten zidaten gus-

tatzen zitzaidana egin eta nire bidea jarraitu behar nuela, eta beti egongo zirela nire alboan.

Nolako harremana zenuen emakumezko taldekideekin?

Iritsi nintzenean egia da arraro egin zitzaiela ez zutelako sekula beste mutilik izan, baina entrena-tzaileak normaltasun osoz barne-ratu ninduen multzoan eta talde-kideek ere normaltasun osoz tratatu ninduten. Ordu asko igarotzen genituen elkarrekin eta konfiantza handia sortzen da. Ni beraientzat anaia baten modukoa nintzen eta alderantziz. Hortaz, familia handi bat osatzen genuela esan daiteke.

Nola joan zitzazkizun lehenengo txapelketak?

Hasieran inguruko txapelketa xumeetan parte hartzen nuen. Gero, nire maila handitzen joan zen heinean, eskualdeko txapelketetara egin nuen jauzi. Katalunia mailakoetan hasi nintzen segidan, horien ostean estatu mailakoetan barneratu nintzen, eta gaur egun nazioarte mailako zitarik garrantzitsuenetan egoten naiz. Gustura nago izan duan garapenarekin.

**Halere, aipatu duzu arautegia-
ren ondorioz zailtasunak izan
zenituela eta ondorioz lehia-
ketak utzi zenituela.**

Lehen urteetan ez nuen inolako arazorik izan, baina 12 urterekin estatu mailako txapelketetarako jauzia emateko garaia iritsi zitzaidanean konturatu ginen arautegiak ez zituela mutilak onartzen lehiaketetan. Egoera horren aurrean, nire klubak Espainiako Federazioarekin eta estatuko gainerako klubekin hitz egin zuen eta ia denek aldeko jarrrera erakutsi zuten ez arau hori aldatu eta bidea zabaldu zidaten.

Hurrengo pausoa nazioarteko txapelketetara igarotzea zen Europako eta munduko txapelketak mugarri edukiz, baina oztopo berberarekin egin nuen topo, arautegiarekin, alegia. Beraz, nire ibilbidean ez aurrera ez atzera geratu nintzela ikusirik, motibazioa galdu eta txapelketak albo batera uztea erabaki nuen 18 urterekin. Nire kabuz entrenatzen



GAURB

eta erakustaldi batzuetan parte hartzen jarraitu nuen, baina beste erritmo lasaiago batean.

**Aurrera egin ezin zenuela
ikustea eta halabeharrez lehia-
ketak uztea kolpe gogorra izan
zen?**

Kolpe gogorra izan zen, bai. Nire taldekideek aurrera egiten zuten eta nik gizonezkoa izate hutsagatik aukera hori ez nuela ikusteak amorrua eman zidan.

**Eta jada esperantza erabat gal-
duta zenuela, bat-batean, Igeri-
keta Sinkronizatuko Munduko
Txapelketan lehendabiziko al-
diz modalitate mistoa egongo
dela iragartzen da.**

Berria irakurri nuenean poz handia hartu nuen, baina urtebete neraman jada lehiaketatik kanpo eta gogor entrenatu gabe. Beraz, ez nuen imajinatu ere egiten txapelketan egotea. Dena den, nire ezustekorako Esther Jauma Espainiako entrenatzaileak hots egin zidan proiektuaren berri emateko eta nigan pentsatu zutela esateko. Munduko Txapelketarako lau hilabete besterik ez ziren falta eta nik ia ezinezko ikusten nuen arren, hausnarketa

bat eginez konturatu nintzen hamabi urte neramatzala igeriketa sinkronizatuan helburu horri segika. Hortaz, saiatu egin behar nuela ikusi nuen. Proba bat egin zidaten eta gainditu nuenez nire aldeko apustua egin zuten.

**Behin zu joango zinela eraba-
kita, zure bikotekidea erabaki-
tzea falta zen.**

Ni taldearekin entrenatzen hasi nintzen nire bikotekidea nor izango zen jakin gabe. Entrenamenduetan Gemma Mengualekin harreman ona egin nuen. Berak gauza berriak probatzeko esaten zidan; neurri batean nire maila aztertzeke modu bat ere bazen. Ikusi zuen pixkanaka hobetzen ari nintzela eta biok batera ondo molda gintezkeela. Hala, nirekin bikote osatzeko eskaini zen. Txikitatik nire idoloetako bat izan da Gemma eta ilusio handia egin zidan berarekin lehiatzeak, ohore bat izan zen.

**Zein desberdintasun dago gi-
zon eta emakumeen artean?**

Malgutasuna da desberdintasun nagusia. Emakumeak izatez gizonak baino malguagoak dira eta guk alor horretan lan gehiago

«Gurasoak dira umetan ditugun oinarri nagusiak eta horrelako egoeretan alboan egon behar dute. Niri beti esaten zidaten gustatzen zitzaidana egin eta nire bidea jarraitu behar nuela»

«Lehen urteetan ez nuen inolako arazorik izan, baina 12 urterekin estatu mailako txapelketetarako jauzia emateko garaia iritsi zitzaidanean konturatu ginen arautegiak ez zituela mutilak onartzen lehiaketetan»

egin behar dugu. Bestalde, indar aldetik guk normalean gaitasun handiagoa izan ohi dugu.

**Hartara, esan daiteke ikuski-
zun mistoa ikusgarriagoa dela
emakumeen eta gizonen ezau-
garriak uztartzen dituelako?**

Nik baietz esango nuke. Batzuen eta besteen gaitasunak batuta ikuskizuna osoagoa eta politagoa dela iruditzen zait.

**Munduko Txapelketan bosga-
rren izan zinen eta iragan aben-
duan, Txinan, World Trophy
txapelketan, Berta Ferrerarekin
batera brontzezko domina kol-
koratu zenuen. Gorantz zoaz.**

Txapelketa desberdina zen. Izan ere, azken lehiaketa horretan arlo artistikoak teknikoak baino garrantzi handiagoa hartzen zuen. Hori bai, oso ondo moldatu ginen eta lortutako emaitza bikaina izan zen. Berta izango da nire bikotekidea aurtan ere eta ea nora-bide berean jarraitzen dugun.

**Zein da zure hurrengo helbu-
rua?**

Orain martxoan Londresen jokatuko den Europako Txapelketarako prestatzen ari gara.

Baduzu ametsik?

Nire ametsa Olinpiar Joko batzuetan parte hartzea litzateke. Bestalde, etorkizunean igeriketa sinkronizatuko talde misto baten entrenatzaile izateak ilusio handia egingo lidake. Halere, ez dakit posible izango den, izan ere, horretarako lanean jarraitu behar da eta urteak beharko dira. Nik ikusten ez badut seguru nago beste belaunaldi batek ikusiko duela.

**Iritsi zaren lekura iritsita eta
lortu duzuna lortuta, zer esan-
go zenieke hasieran kritikatu
zintuztenei?**

Garai hartan esaten nien hori zela niri gustatzen zitzaidana, eta, beraz, bidea jarraitu behar nuela. Orain, besterik gabe, esango nieke ikusteko noraino iritsi naizen inorekin sartu gabe eta inori minik egin gabe. Argi dagoena da bakoitzak gustatzen zaion horri heldu behar diola, denak ez gara berdinak eta. Ea guk ireki dugun bideak horretarako balio duen.



Ibon Garcia barakaldarrak aurretik ibili zuen Ribesen bidea, eta ibilian segitzen du

Pau Ribes da estatu mailan igeriketa sinkronizatuan diharduten gizonetatik ezagunena baina bere aurretik izan da antzeko bidea egin duenik. Hori da, hain zuzen, Barakaldon sorturiko Ibon Garciaren kasua. Bere izena bolo-bolo ibili zen emakumezkoen artean leku bat egin eta Euskadiko hainbat txapelketa irabazi zituen garaian. Albiste berezi eta deigarria zen gizonetzkoa eta igeriketa sinkronizatuko txapelduna izatea, nobedadea, alegia. Ordea, Ribesen moduan, horrenbeste maite zuen kirola albo batera utzi behar izan zuen Garciak nazioarteko txapelketetan parte hartu ezinda bere ibilbideak aurrera jarraitzeko zirrikiturik ez zuela iritzita.

Orain, modalitate mistoaren agerpenarekin bigarren aukera bat ireki zaio eta ez du alferrik galdu nahi. Bueltan da Garcia, ilusioz gainezka.

Saskibaloian eta igeriketan aritzen zen Ibon Garcia 12 urterekin igeriketa sinkronizatua lehen aldiz probatu aurretik. Bere ama igeriketa sinkronizatuko irakaslea zen eta bere ikasleek egiten zutenak erakarrita probatzea erabaki zuen. Gainera, Garciari uretan ibiltzeaz gain betidanik gustatu izan zaio dantzatzea eta abestea, eta igeriketa sinkronizatuak hiru alor horietatik bi uztartzeko aukera eskaintzen zion. Hala, Gallartako udal igerilekuan eman zituen lehen pausoak neskak bakarrik zeuden klase batean. «Ni nintzen klaseko mutil bakarra, baina hori ez zen arazo izan inoiz eta ez zidaten inongo trabarik jarri». Aitzitik, primeran hartu zuten multzoan eta hasieran jendea zertxobait harritzen zen arren, ez zuen komentario desatseginik jasan behar izan. «Egia da batzuek galdetzen zutela ea zer egiten zuen mutil batek igeriketa sinkronizatua bezalako kirol batean, izan ere, ordura arte ez zuten horrelakorik ikusi, eta, beraz, arraro egiten zitzairen. Halere, kontua sekula ez zen harago joan. Niri zuzenean ez zidaten ezer txarrik esan».

Hastapen haietan astean hiru egunez entrenatzen zuen saio bakoitzak ordubeteko iraupena zuelarik: «Hori oso gutxi da, izan ere, adin horrekin igeriketa sinkronizatuan buru-belarri dihardutenek egunean ordu mordo

entrenatzen dute». Bere ibilbidean aurrerapauso bat eman asmoz Urbarri taldera jauzi egin zuen 16 urterekin. Garai hartan hasi zen junior mailako Euskadiko txapelketetan parte hartzen eta egindako lanak fruituak eman zituen garaipenen bitartez. Lehenengoak egin zion ilusio gehien, ez baitzuen inondik inora ere espero. Aurrerantzean ere izan zuen zer ospatua, urte mordoan izan zen-eta Euskadiko errege.

PAU RIBESEN GURASOEN ESKUTITZA

Igeriketa sinkronizatua kirol minoritarioa izanik ez da ohikoa izaten egunkarietako orrietan tartea izatea, baina garailea gizonetzkoa izateak hedabideen arreta piztu zuen nonbait, eta makina bat tokitan agertu zen Ibon Garciaren izena: «Albisteak zeresan handia izan zuen eta hedabide askotan agertu nintzen, baita 'Marca' egunkarian ere. Prentsan agertzen hasi nintzenean egoerak gainezka egin zidan. Ni ez nengoen ohituta horretara eta dena egun batetik bestera izan zen. Jende askok ez zekien igeriketa sinkronizatuan nenbilenik ere, eta ezagutzera emateko balio izan zuen behintzat».

Albiste irakurri zutenen artean zeuden Pau Ribesen gurasoak eta haientzat ere ezustekoa izan zen beste mutiko bat igeriketa sinkronizatuan zebilela jakitea. Poza eman zien berriak eta gutun bat bidali zuten Garciak entrenatzen zuen kiroldegira berarekin harremanetan jartzeko asmoz. Urte horretan, gainera, Espainiako infantil mailako txapelketa jokatu zen Barakaldon, Pau lehiatzera joan zen eta orduan izan zuten aurrez aurre elkar ezagutzeko aukera. «Nik orduan 19 urte nituen eta Pauk, berriz, 15. Polita da ikustea ez zarela mutil bakarra. Ordutik aurrera hainbat txapelketetan topo egin genuen eta gure gurasoek ere telefonoz hitz egiten zuten haien artean. Nik aurretik bide hori egina nuenez, Pauren gurasoentzat lagungarria izan zen sortzen zitzaizkien zalantzak argitzeko».

Txapelketetan topo egiten zuten baina sekula ez aurkari moduan, izan ere, bien artean lau urteko tartea egonik maila desberdinetan lehiatzen zuten. Hala,



Ibon Garcia eta Alba Gonzalez. GAUR8

biak izaten ziren euren mailetakoa mutil bakarrak.

Lehiaketa horiei etena jarri zien Garciak 21 urterekin, arautegiaren ondorioz –ez zuen baimentzen gizonetzkoen parte hartzea–. Beraz,

nazioarteko lehiaketetan parte hartu ezinik bere ibilbidearen garapena erabat mugatuta geratu zen halaberharrez. Bestalde, Itsasoko Zientziak ikastera joan zen Las Palmasera eta igeriketa sinkronizatua albo batera utzi zuen, nahiz eta bere kabuz kirola egiten jarraitu zuen.

GALDU EZINEKO AUKERA

Bizimodu berri batean murgilduta eta igeriketa sinkronizatuko lehia ofizialetara itzultzeko esperantza galduta zuenean ireki zitzaion ostera jada itxia zuen atea Ibon Garciari modalitate mistoaren agerpenarekin. Ez zuen bitan pentsatu eta Metropole taldean sartuta entrenamenduei berrekin zien: «2012ko udaran igeriketa sinkronizatua utzi nuenetik 2015eko otsailera arte entrenatu gabe egon nintzen. Ia hiru urte dira, denbora asko da, eta hasieran kosta egin zitzaidan martxa hartzea. Orain, egunero hiru ordu entrenatzen ditut, eta utzitakoan astean sei-zortzi entrenatzen nituen. Hortaz, dedikazio maila askoz handiagoa da. Lehen asteetan lehertuta iristen nintzen etxera, baina pixkanaka jarri naiz».

Modalitate mistoa ofizial egitea oso pauso garrantzitsua dela dio Garciak eta uste du aldaketak mutil gehiago gerturatuko dituela igeriketa sinkronizatuta: «Pau eta ni ez gara igeriketa sinkronizatuan gabiltzan eta ibili garen mutil bakarrak. Gehiago egon dira, baina horiek ez dute parte hartu estatu mailako txapelketetan, eta, ondorioz, ez dira ezagutzen. Orain, berriz, modalitate mistoak izan duen oihartzunarekin hasiko dira mutil gehiago Espainiako txapelketetan agertzen, ikusiko dutelako kirol honetan bidea egin daitekeela».

Garciak argi du modalitate mistoarena urrats potoloa dela, baina, era berean, gogoratzen du oraindik beste asko geratzen direla emateke: hala nola, gizonak bakarkako modalitatean lehiatu ahal izatea edota taldekako modalitatean gizonen lehiaketa bat abian jartzea.

Berari dagokionez nazioarteko txapelketetan parte hartzea da egungo nahia. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da Espainiako selekzioan egotea, eta, momentuz bikote bakarra dagoenez, Pau Ribes da leku hori betetzen duena. Haatik, ez du amore emango, baikorra da Garcia, eta lanean jarraituko du egunen batean desio hori errealitate bihurtuko den ilusio eta esperantzaz.



Juan Carlos RUIZ - Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

UKATUTAKO DANBORREN TAUPADAK PILATUTA

Egun ezagutzen dugun Donostiako danborradan, 1980an atera zen lehen emakumea danborra jotzen, Kresalarekin. Haurren danborradan, berriz, hamarkada horren erdialdean eman zen aldaketa. Ordura arte neskek debekatuta zuten danborra jotzen ateratzea eta halako atrebentzia egitera ausartzen ziren eskolei diru laguntza kentzen zien Udalak. Hartara, neskatoak belarritakorik gabe eta ilea bilduta ateratzen ziren maiz, oharkabean pasatze aldera.

Egoerari buelta eman nahian zebiltzan zenbait irakaslek, neskatoen debekua gehiegizkoa zela salatzeke, desfile erdira atera eta neskatoei ilea askatu zieten. Ilea aske dabilta geroztik, nahiz eta artean baden zer askatu. Urteak pilatutako begiek ikusi dute danborrada aldatzen, baina oraindik asko ikusteko duenaren irrikaz hunkitzen dira Sa-rriegiren doinuekin, haiei ukatu dizkieten danborren taupadak pilatuta balituzte bezala. amagoia.mujika@gaur8.info



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Ikastetxeek, baserritar ekologikoek eta janari zerbitzuak bat egin dute Urdaibain

EAEn bertako produktu ekologikoekin lan egiten duten eskola jantokien esperientziak oso mugatuak dira eta denak kokatzen dira sare publikotik kanpo. Ezagunenak, agian, Ekolapiko proiektuko zentroak lirateke (www.ekolapiko.net), baina badaude beste batzuk ere. Tankera horretako ekimen guztien ezaugarri komuna da zentroak berak kudeatzen dituela zuzenean bai sukaldaria eta baita jantokia ere, pertsonalaren gastuak beren gain hartuz eta erosketak non eta nori egin erabakiz.

Duela lau urtetik hona, Urdaibain (Bizkaia) badira beste bi esperientzia bertoko produktu ekologikoekin dihardutenak: Bermeoko Sagrado Corazon eta Gernikako San Fidel ikastoletako jantokiak, hain zuzen. Hauen berezitasuna da sukalde eta jantoki zerbitzua enpresa bati kontratatzen diotela, baina lehengaien jatorriari buruzko irizpide zehatzak adostuta daudakela: ahal den neurrian, bertokoa eta ekologikoa.

JANTOKIA HEZKUNTZA-PROGRAMAN TXERTATU

San Fidel eta Sagrado Corazon ikastetxeek, jantokia kudeatzen dien janari zerbitzu bera izateaz gain, Eskola Agenda 21 komuna ere badute. Enrikek, Bermeoko Sagrado Corazon ikastetxeko zuzendariak, argitzen du Agenda 21 egitasmoaren testuinguruan otu zitzaiela jantokia bertoko produktu ekologikoekin hornitzeko proposamena. «Bertokotasuna ikastolaren planteamendu osoan txertatuta dagoen zerbait da, edozein zerbitzu kontratatzeko beharra badugu, beti jotzen dugu Bermeora. Logika berdina jarraituta, produktu ekologikoa eta ahalik eta neurri handienez bertokoa erabiltzeko eskatu genion Askorari (jantoki zerbitzua kudeatzen dien enpresa gipuzkoarrari, hain zuzen). Horren ondorioz, bertoko elikagai ekologikoez gain, Bermeoko okindegi batetik hartzen dugu ogia eta haragia inguruko baserritar batena da, Bermeoko harakin batek prestatua. Asteaz bi edo hiru egunetan elikagai eko-



FICIBA - BIOTERRA

logikoak dauzkagu menuan. Gurasoei pasatzen zaien hiruhilabeteko menuen programazioan, markatuta daude bertokoak eta ekologikoak diren produktuak. Lehengaien kostuak zertxobait igo badira ere, gurasoek zerbitzuarengatik ordaindu behar dutena bere horretan mantendu da. Izan ere, zerbitzuaren kostua garestitzen duena langileen ordainketa da, lehengaiak ez dute hainbeste suposatzen».

Enpresatik argitzen dutenez, Busturialdeko baserritar ekologiko ezberdinekin

egiten dute lan, entsaladarako lehengaien, frutaren eta fruitu lehorren horniketarako. Ainhua Iturbe eta Alex Zubia baratzeazain ajangiztarrak dira baserritar horietako batzuk. Pozik daude ekimenarekin. Diotenez, ikastetxeen eta Askora enpresaren jarrera oso positiboa da. «Salneurriak hasieratik adostu genituen. Sasoika, zein produktu diren interesgarrienak ere adostu genuen. Jeneroa eramateaz, berriz, gu enkargatzen gara. Noski, daukagunean», agertu dute.

Catering enpresatik adierazten dute beraien funtzionamendua moldatu behar izan dutela, zuzenean baserritarrek hornitutako produktu freskoen manipulazioak lan gehiago eskatzen dielako sukaldariei, eta, bertoko produkturik ez dagoenean, programazioa aldatzeko gaitasuna izan behar dutelako.

Jantokiek umeen hezkuntzarako eskaintzen dituzten aukerak baliatzea bi ikastetxeen lehentasuna da. Askorak ere eskaintzen ditu horretarako zerbitzuak, elikagai ezberdinen inguruko ekintzak antolatuz eta, hiru hilean behin, Euskal Herriko Haziaren Sarearekin batera bertoko barietateen haziak eskolako umeei banatuz. Pasa den ikasturtean, esaterako, Sabandoko gari gorriaren haziak eta Zallako kipularenak banatu zituzten, umek beraien etxetan erin eta gerora Bermeoko ikastetxeko ortuan landatzeko.

KUDEAKETA PROPIORAKO PROIEKTU PILOTUAK


Hainbat ikastetxe eta gurasoren eskariari erantzunez, Eusko Legebiltzarrak 2014an onartu zuen ikastetxeen sare publikoko lau zentrotan proiektu pilotuak abiaraztea, kudeaketa propioaren bideragarritasuna frogatzeko. Denbora luzez itxaroten egon eta gero, azkenik 2015aren bukaeran erabaki zen zeintzuk izango diren saioa egiteko ikastetxe aukeratuak, laurak bizkaitarrak. Horrenbestez, Markinako eskola publikoan, Laukarizko Lanbide Heziketako zentroan, Gernikako eskola publikoan eta Urduñako eskolan abiatuko dira proiektu pilotuak. Ikastetxe bakoitzeko guraso elkarteak izango da proiektu bakoitzaren arduradun izango duena, lehengaien kudeaketatik hasi eta langileen kontratazioaraino. Proiektuaren jardunean gainkosturik gertatuko balitz, Eusko Jaurlaritzak hartuko luke bere gain. Printzipioz, proiektu pilotu hauek ikasturte honetan eta hurrengoan zehar garatuko dira.

ENEK
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua

infraganti

JUANMA INDO

Bidaia du bizitzeko legea, eta bizitza bera du bidaia. Juanma Indo da, sustraiak Pasaian bota dituen aiarra. Mundu erdia zapaldu du, baina ez du gelditzeko asmorik: beste erdia falta zaio. Afrikara eginiko bidaia batean panpina bat ezagutu zuen: Michelin etxearen Bibendum maskota. 450 ezberdin bildu eta erakusketa jarri du Bilboko Azkuna Zentroan.



Bidaiatzea. Bizitza bidaia bat da. Guztioi gustatzen zaigu bidaiatzea; guztioi gustatzen zaigu bizitzea. Bidaiatzeko modu ezberdin ugari daude, baita bizitzeko ere. Juanma Indo pasaitarraren presentazio karta da, bere bizi filosofiaren isla den aurkezpen pertsonala. Bidaia-tzea du bizitza filosofia, toki berriak ikustea, jende berria ezagutzea. Aspaldi ekin zion modu horretan bizitzeari eta, epe laburrean behintzat, ez du bizitzeko filosofia hori aldatzeko inongo asmorik.

Duela 40 urte inguru –24 urterekin– ekin zion bere lehenengo abenturari, eta orduz geroz-

tik ez du atsedunik hartu. Barruko eremuen diseinatzailea da bera, eta egun oraindik jardunean jarraitzen du. Baina dio suerteko dela, bera bidaiari joaten denerako sozio perfektua duela. Harekin bizi izan zuen lehenengo abentura: «Donostiatik Indiaraino joan eta buelta egin genuen autoz. Bizitzako bidaiarik luzeena –urtebete iraun zuen–, politena eta interesgarriena suertatu zen». Autonomoak dira, eta horrek abantaila batzuk ematen dizkie: «Lan bat amaitzean, eta berri bat atera bitartean, denbora izaten dugu. Suer-tez ez dugu inoiz lan faltarik izan; aitzitik, bezeroren bati lan eskaera atzeratzeko galdegin izan diogu, buruan geneukan bidaiaren bat tarteko».

24 urterekin hasi eta gaur arte ez dio bidaiatzeari utzi Indok. Irudian Segoun, Malin, bertako herritarrek.

Juanma INDO

Hippy mugimendua bete-be-tean zen garaietan egin zuen lehenengo bidaia hura Indok. Gogoan du Katmandu edo Goa bezalako hiriak oso ezagun egin zirela: «Nolabait esatearren, hippyek ‘deskubrituriko’ lekuak izan ziren; hippyak izan ziren leku horietara joan ziren lehenengo europarrak. Mugimendu horretara gehitu eta Indiarako bidea hartzea erabaki genuen guk ere». Bidaia gogorra izan zen, ez maparik ez gidarik ez zutelako. Indian izanak ziren pertsonen galdetuz osatu ahal izan zuten bidea.

Bidaia hartatik itzuli eta ohartu zen toki anitz utzi zituztela bisitatzeke. Gainera, beste lagun bati sortu zitzaion Indiara joateko gogoia. Hala, Indiara bidean

zen berriz urte eta erdiren bueltan, beste zortzi lagunekin batera, bi Land Roverren gainean.

Bada, ordea, Indiara eginiko bi bidaien artean hainbat ezberdintasun. Lehenengo aldian Iran zeharkatu zutenean herrialdea xahren agindupean zegoen; bigarrenean, aldiz, Jomeinik herrialdeko agintea hartua zuen jada. Lehen aldian arazorik gabe zeharkatu zuten Afganistan, baina bigarrenengoan sobietarrak sartuak ziren herrialdean. Ondorioz, bertatik ez igarotzea erabaki zuten.

Izan ditu zonalde horretan anekdota gehiago. Irandarrek estatubatuarren enbaxada hartu zutenean Teheranen bertan zen bera: «Orain ordukoaz oroi-tu eta... ez ginen ezertaz jabetu! Bidaiarekin jarraitu genuen Indiara iritsi arte. Itzuleran, ordea, Pakistanetik Iranera sartu ginen atxilo hartu gintuzten. Bezperan bi helikoptero estatubatuarrek istripua izan zuten euren herritarrak Teherango enbaxadatik ateratzeko plan bat aurrera eramaten ari zirela. Amerikarekin nahastu gintuzten! Gaizki ulertua konpondu eta arazorik gabe jarraitu genuen bueltako bidearekin».

BIDAIATU, EZAGUTZA HANDITZEKO

Bere baliabideekin egiten ditu bidaia guztiak Indok, izan autoz edo motorrarekin. Modu horretan, autonomia irabazten duela dio: «Nahi duzun lekura joan zintezke, leku bat gustatu eta bertan gera zintezke... Antolatutako bidaien kasuan egunez egunez ibilera guztiak aurrez dau-de zehaztuta». Dio abentura berri bat abiatzeko orduan lehendabizikoa eta errazena ideia izatea dela, «gero datoz bisak, tramitazioak, eta abar». Eta bidaien iraupena ere ezberdina izan ohi da: «Izan daitezke hila-bete eta erdikoak, hirukoak, sei-koak... Luzeenak urtebetekoak izan dira, Indiara egin ditudanak; 48.000 kilometroko bidaiak egin izan ditut».

Dio Indok bidaiatzeak egiten dion ekarpen nagusia jendea ezagutzea dela, beste kultura baten pertsonen egotea. «Gatazka gune askotatik igaro izan

naiz eta ez zait inoiz ezer pasa. Garrantzitsuena aurretik irribarre batekin joatea izaten da, eta ahal den neurrian bertako herritarrekin ongi konpontzea». Frantsesa kontrolatzen du ingelesa baino gehiago, horregatik egiten zaio errazagoa Afrika frankofonoko jendearekin elkartzea Indiakoekin baino. Hala ere, gaineratu du kulturak baduela zerikusirik horretan: «Esango nuke Afrika frankofonoko herritarrak askoz ere irekiagoak direla. Indian, berriz, kultura britainiarraren zantzu gehiago dituzte, eta zailagoa egiten zait».

Afrikara begira jarrita, gaineratu behar da bost Paris-Dakar lehiatu dituela, lagun kataluniar batek egin zion proposamenari esker. «Aurrez ere banuen Paris-Dakarra lehiatzeko ideia, baina ez neukan inolako presarik. Aipatu lagunak babesle bat lortu zuen, eta lasterketa ezer ordaindu gabe egiteko aukera eman zidan. Bost aldiz lagundu diot kopilotu moduan, eta behin bakarrik lortu dugu lehiaketa amaitzea. Azkenean, ordea, aspertu egiten zara, lasterketa ezer baino gehiago mito bat delako. Herriak abiada bizian zeharkatzen dira, bertan geratu eta bertako herritarrekin egoteko aukerarik gabe, euren bizimodua nolakoa den ikusteke», azaldu du.

AFRIKAN BIBENDUM PANPINEKIN TOPO
1988an zapaldu zuen Indok lehenengo aldiz basamortua, Mauritania. «Basamortua ukitzean berriz joan behar da, berriz galdu behar da, berriz pasa behar dira egunak bertan», azpimarratu du. Bada, basamortuan egin zuen topo lehen aldiz Michelin enpresaren Bibendum panpina batekin. Basamortuaren erdian zen, eta gurpil bat zulatatu zitzaion. Hala, tailer txiki batera gerturatu ziren: «Modu horretan aurkitu nuen lehen Bibendum panpina hori, pareta batean margotuta. Artistikoki bere interesa zuelakoan atera nion argazkia, eta, konturatzeke, 180 argazkiko bilduma bat osatu nuen; 180 Bibendum ezberdin nituen».




Bibendum panpinak, batez ere, Senegal, Burkina Faso, Mali eta Beninen lortutakoak dira. Irudikoak Senegalekoak dira.

Inguruko jendeak esku artean zuen hori gustuko zuela ikusita, Michelin enpresaren egoitza nagusira jo zuen, bildumarekin zerbait egiteko asmotan. Bertan, ordea, marketin sailetik atzera bota zioten proposamena, «bildimak enpresak gaur egun saldu nahi duen irudiarekin bat ez zuela egiten aitzakia bezala jarrita». Baina, etsi beharrean, Afrikarako beste bidaia bat prestatzeari ekin zion Indok, Bibendum gehiagoren bila joan asmoz. Hala, iragan martxoan

Bere baliabideekin egiten ditu bidaia guztiak Indok, izan autoarekin edo motorrarekin. Modu horretan, autonomia irabazten dela dio: «Nahi duzunean nahi duzun lekua joan zintezke»

Guztira 450 Bibendum irudi bildu ditu, Senegal, Burkina Faso, Mali eta Beninen batez ere. Irudi horiekin erakusketa bat antolatu du Azkuna Zentroan; bihar itxiko ditu ateak erakusketak



Juanma INDO

eginikoa du azken bidaia. 4x4 autoa hartu eta Afrikarako bidean jarri zen; 450 Bibendum panpinekin itzuli zen, horietako 22 originalak [tailer ezberdinetako jabeek emaniko plakak]. Gehienak Senegalen, Burkina Fason, Malin eta Beninen lortu izan ditu. Orain Boli Koston jarri ditu begiak Indok, baina hara joatea zail samarra dagoela dio, batez ere inguruko herrialdeek bizi duten egoeraren ondorioz.

450 Bibendum esku artean, Bilboko Azkuna Zentroko zuzendariarekin egin zuen topo Indok: «Komentatu nion zerbait artistikoa egiteko asmoa nuela eta interesgarria iruditu zitzaien. Hona etorri, materiala ikusi eta erakusketa bat antolatzeko proposatu zidan. Hilabete eta erdian antolatu zuen dena. Bihar [iragan larunbatean] egingo du hilabete esposizioak eta 5.000 pertsona inguru pasa dira jada. Izugarria iruditu zait». Bihar izango ditu irekita ateak erakusketak azken egunez.

Baina ez dago Indo geldirik egoteko. Hurrengo bidaiarekin pentsatzen hasia da dagoeneko, «izan daiteke Afrikara, edo izan daiteke Mongoliara. Ez dakit -jarraitu du-, animatzen diren lagun arabera izango da». Europa behintzat ez da izango hurrengo geltokia: «Nik beti diot Europa oso gertu dagoela eta zahartzean, bidaiatzeak lan gehiago ematen duenean, bisitatuko dudala. Baina urrun dauden toki horiek zenbat eta lehenago bisitatu hobe».

Garbi duen beste kontu bat da bere bitartekoekin bidaiatuko duela: «Nire autoa bertan lo egiteko prestatuta daut, sukalde txiki bat ere badu... Oso erosoa da dena». Hurrengo bidaiara, ordea, lagun berri bat eramango du, tramankulu berri bat: drone bat. «Faltan bota izan dut airetik ateratako irudi batzuk izatea; orain posible da». •



Ander Izagirre - @anderiza
Kazetaria

Altxorraren bila Islandian

Berrogei urte lehenago, Islandiako sumendi batean kristalezko poto bat ezkutatatu zuen Agustin Egurrolak. Halaxe kontatu zigun gutun batean, eta gutunarekin mapa bat ere jaso genuen, Agustinek berak eskuz marraztutakoa: irlako glaziarak, mendikateak, sumendiak, errekek, bideak. Maparen albo batean, Myvatn lakuaren ingurua zehaztasun gehiagoz ageri zen. Lakuaren ertz batetik, Reykjahlid izeneko hoteletik, marra eten bat ateratzen zen Hlidaarfjell sumendiaren tontorreraino. Kaligrafia landuko ohar bat ere irakur zitekeen: “Nik harripilo (cairn) bateren goi aldean, beste harri batzuekin estalita, mendi honen tontorrean, kristalezko poto baten utzi nuen neure mezua, 1968ko abuztuan”. Altxorraren mapa hartu eta Islandiara abiatu ginen Josu Izutueta eta biok.

Agustin Egurrola etxebarritarra Sheffielden (Ingalaterran) bizi zen. Erretiroa hartu zuenean, kontinente guztiak oinez eta bizikletaz zeharkatu zituen, Antartika salbu –hotzegia omen–. Azken bidaia 74 urterekin osatu zuen, Adriatikotik Baltikora oinez. Giharrak, birrikak eta, batez ere, bihotza zeuzkan motortzat, bakardadea maite zuen, isiltasuna, kanpin-dendaren soiltasuna. Estreinu gabeko mundu bat goizero deskubritzen duenaren pozarekin ekiten zion bideari, eta gauero bere koaderno txikian idazten zituen jardunaldiko kontuak; gero, bidaia-amaieran, mekanografiatu, fotokopiatu, koadernatu eta lagunei opari gisa bidaltzen ziena.

Baltikora oinez iritsi eta hilabete gutxira, 2009ko otsailean, minbizi batek eraman zuen Agustin. Hil baino aste batzuk lehenago, Islandiako altxorraren mapa bidali zigun, hara joateko asmoa geneukala bazekielako.

Berrogei urte igarota, Islandia ez zen Agustinek ezagutu zuen irla bera, etengabe borborrean, kraskatzen, lehertzen eta eraldatzen ari den lurralde bolkanikoa baita. Egungo zenbait mendi eta uhartetxo, mapetan tinko ageri direnak, oraindik ere azaleratzen ari ziren Agustin handik ibili zenean. Artean ez zuten burutu irlari itzulua ematen dion

Ring Road errepide famatua ere. Hori bai: Hlidaarfjell sumendia hantxe zegoen eta hantxe dago.

Piramide beltz bat da Hlidaarfjell, 711 metrokoa, Myvatn lakuaren ondoan altxatzen dena. Ordu pare bat behar izan genituen Josuk eta biok, magma gogortutako maldan gora, gailurra zapaltzeko. Ikusmira zorabiagarria zabaldu zitzaigun, paisaia estralurtarra: laba zelai arrakalatu eta elurtuak, kono bolkanikoak, krater lehertuak, urmaelak irakiten, fumarolak... Baina Agustinek marraztutako harri piloaren arrastorik ez tontorrean.

Harriak batera eta bestera mugitzen aritu ginen, berrogei urte lehenagoko mezuarekin ametsetan. Zer idatzi ote zuen?

Hogei minutu igaro genituen gailurra alferrik arakatzen. Azkenean mokadu bat jatera eseri ginen. Ekaitz batek harri piloa aspaldi bota zuela pentsatu genuen, haizeak potoa mendian beheara eraman zuela... ala agian gugandik metro erdira egongo zela, edozein arroaren azpian. Etsita, topikoen kontsolamenduan

jausi ginen: Agustinek utzi nahi zigun benetako altxorra tontorretik ikusten zen panorama izango zen, benetan garrantzia duena bidea da eta ez helburua, eta antzeko memelokeriak. Orduan Slawomir Mrozek idazle poloniarren ipuin labur bat etorri zitzaidan gogora, “Altxorraren uhartea” izenekoa.

Narratzailea eta Gucio bere kidea hamabost urtez ibili dira “Morgan kapitainaren altxor ospetsua” bilatzen, abenturaz abentura. Azkenean heldu dira altxorra lurperatuta omen dagoen irlara, mapan markatutako puntuan lurra zultzen hasi dira eta kutxa zahar bat aurkitu dute. Zabaldu eta ohar bat besterik ez zaie agertu: “Eman iezadazue musu bat ipurdian! Morgan”.

Orduan Gucio esaten du: «Helburua ez da inoiz garrantzitsuen. Benetan balio duena helburua lortzeko ahalegina da, ez helburua bera». Eta narratzaileak: «Gucio hil nuen eta etxera itzuli nintzen. Alegietako irakaspenak atsegin ditut, baina neurrian». •

www.anderiza.com



Helburua ez da inoiz garrantzitsuen. Benetan balio duena helburua lortzeko ahalegina da.

GAUR8

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



GASTEIZKO UDAL ARTXIBATEGIA. BALBINO SOBRADO. SOB-9X12-22_10

VASCO-NAVARRO TRENBIDEA ERAKITZEN, ESKORIATZA INGURUAN, 1915. URTEAN

Vasco-Navarro bide estuko trenbideak Bergara eta Lizarra batzen zituen Gasteiztik barna. Guztira 143 kilometroko bidea egiten zuen trenak eta martxan egon zen 1889tik 1967. urteko abendura bitartean. 1887. urtean hasi ziren trenbidea eraikitzen eta bi urtera inauguratu zen lehen zatia, Leintz Gatzaga eta Gasteiz bitartekoa. Baina 1929. urtera arte ez ziren erabat bukatu eraikuntza lanak eta elektrifikazioa 1938. urtean egin zen. Irudian trenbideko eraikuntza lanon une bat jasotzen da, 1915. urtean, Eskoriatza inguruan. Idi pareak ikusten da lokomozio-aparatua garraiatzen. Argazkiaren egilea Balbino Sobrado izan zen, argazkilaritzara zaletutako gasteiztarra. Garaiko hamaika ohitura eta une jaso zituen bere kamerarekin.

1,5€
ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



**DATORREN OSTIRALEAN
ZURE KIOSKOAN SALGAI**



7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com

